



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2015eko maiatzaren 12a

55. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Orkoiengo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Orkoiengo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko martxoaren 23an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Orkoiengo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko martxoaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Orkoiengo Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. Helburua (5. or.).

III. Iritzia (5. or.).

III.1. Orkoiengo Udalaren 2013ko kontu orokorrari buruzko iritzia (5. or.).

III.2. Iturgain Udalaren Hirigintza Sozietatearen 2013ko urteko kontuei buruzko iritzia (6. or.).

III.3. Orkoiengo Udalaren finantza-egoera 2013ko abenduaren 31n (7. or.).

III.4. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea. (9. or.).

III.5. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (9.or.).

IV. 2013ko kontabilitateko egoera-orrien laburpena (10. or.).

IV.1. Udalaren 2013ko kontu orokorraren laburpena (10. or.).

IV.2. Sociedad Urbanística Municipal Iturgain, S.A.ren urteko kontuak (12. or.).

V. Orkoiengo Udalari buruzko ondorio eta gomendioak (13. or.).

V.1. Alderdi orokorrak (13. or.).

V.2. Langile-gastuak (13. or.).

V.3. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea (15. or.).

V.4. Udal instalazioen kudeaketa (16. or.).

V.5. Udalaren inbertsioak (19. or.).

V.6. Transferentzia arruntengatiko gastuak (20. or.).

V.7. Tributuak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk (20. or.).

V.8. Bestelako diru-sarrerak (22. or.).

V.9. Hirigintza (22. or.).

VI. Sociedad Urbanística Municipal Iturgain, S.A.ri buruzko ondoarioak eta gomendioak (23. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (26. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (32. or.).

I. SARRERA

2014ko urtarrilean, Kontuen Ganberan parlamentu-eskari bat erregistratu zen, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldearen ekimenez, non honakoa eskatzen baitzen:

“...Orkoiengo Udalari buruzko fiskalizazio-txosten bat egitea, non udal kontuak bilduko baitira, bai eta dauden udal enpresa eta patronatuenak eta udal instalazioen kudeaketa pribatuarenak ere, gutxienez ere 2012ko eta 2013ko ekitaldietakoak...”

Eskarian aipatzen bazen ere 2012ko eta 2013ko kontuen fiskalizazioa, denbora-esparrua 2013ra mugatu da, nahiz eta txostenak aztertzen duen Udalak azken lau urteetan eduki duen egoera finantzarioa, bai eta bi ekitaldietan zehar udal instalazioen zeharkako kudeaketatik heldu diren egitateak ere.

Azterlan hori Kontuen Ganberak 2014. urterako onartu zuen fiskalizazioko urteko programan sartu zen, eta auditoriako hiru teknikarik eta auditore batek osatutako taldeak egin zuen, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboekin lankidetzan. Azterketa-lana 2014ko azarotik 2015eko otsaila bitarteko hilabeteetan egin zen.

Orkoiene Iruñetik bost kilometrora dagoen udal soil bat da; 5,59 km²-ko azalera du, eta 3.716 biztanle zituen 2013ko urtarrilaren 1ean.

Udala oinarrizko erreferentziako esparruko gizarte zerbitzuaren egoitza da (Oltza Zendea, Itza, Lete, Goñi ibarrak, Olló ibarra, Belaskoain, Ziritza, Zabaltza, Bidaurreta eta Etxauri), bai eta euskara zerbitzuaren egoitza ere, azken hori Oltza Zendearekin eta Etxaurirekin hitzartua.

Udalak 1998an sortu zuen daukan sozietate bakarra, Sociedad Urbanística Municipal Iturgain, S.A. izenarekin, haren bitartez hirigintza-azterlanak eta hirigintzako planeamenduko eta exekuzioko tresnak gauzatzeko eta orubeak, industria nabeak eta etxebizitzak sustatu, eraiki eta besterentzeko; kapital sozial gisa 200.677 euroan baloratutako lur-zati batzuk jarri zituen, bai eta 9.678 euroko kopurua eskudirutan.

Sozietateak babes ofizialeko etxebizitzak eta etxebizitza libre tasatuen zenbait sustapen egin zituen 1998tik 2005era. Gaur egun, haren jarduera mugatuta dago Udalaren higiezinaren zenbait alokairu kudeatzera. 2013an, enpresan lan egiten zuen pertsona bakarra kendu zen –lan administratiboak egiten zituen–, zeren eta ez baitzegoen kudeatu beharreko jarduera muntadunik.

Halaber, aipatu beharra dago Udalaren osoko bilkurak 2012ko abenduan erabaki zuela garai hartan zegoen erakunde autonomo bakarra, Argia Patronatua, azkentzea, haren ondasun, eskubide eta betebeharrak guztiak bere gain hartuta eta garbiketako langileak bere plantillan hartuta.

Udalaren eta haren sozietatearen datu ekonomiko eta langileei buruzko datu nagusiak honakoak dira 2013ko ekitaldiaren itxieran:

	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2013-12-31n
Udala	3.290.631	3.529.631	35
	Negozioen zenbateko garbia	Ustiapen gastuak	Langileak, 2013-12-31n
Sociedad Urbanística Iturgain, S.A.	2.806	73.922	0

Sozietatearen kasuan, gehitutako diru-sarrera eta gastu batzuk badaude, 6,74 milioi euro egiten dutenak; lotuta daude enpresa batekiko zorrarekin, epai baten ondoriozkoa, VI. atalean azaltzen dugun bezala.

Udala, hiri garraioaren eta hondakinen kudeaketarako nahiz uraren hornidurarako, Iruñerriko Mankomunitateko kidea da. 2013an, horrek 105.510 euroko gastua ekarri zion Udalari.

Udalak Oltza Zendeako Udalarekin partekatzen du Musika Eskola, zeinak Udalaren patronatu batek kudeatzen baitu. 2013an, zerbitzu horrek 90.000 euroko gastua ekarri zion Udalari.

Ondoren ematen dugu Orkoien Udalak ematen dituen zerbitzu nagusiei buruzko laburpen bat:

Udal zerbitzuak	Udala	Mankomunitatea/ Partzuergoa	Zerbitzu-kontratua	Errentamendua
Zerbitzu administratibo orokorrak	X			
Musika eskola		X		
Etkez etxeko laguntza zerbitzua	X			
Hilerria	X			
Hirigintza			X	
Uraren presio handiko eta txikiko hornidura		X		
Hiri hondakinak		X		
Kale garbiketa			X	
0-3 urtekoen ikastetxea			X	
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	X			
Udal-kiroldegia.				X
Igerilekuak				X
Kirol jardueren kudeaketa				X
Ikastetxeen mantentze-lanak	X		X	
Ludoteka			X	
Udalaren futbol-zelaia				X
Gizarte-etxea	X			
Kontsumitzaileen informaziorako zerbitzua			X	
Hizkuntz eskola			X	
Industrialdea	X			
Gazteentzako programa			X	

Aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudiari dagokionez, Iturgain merkataritza-sozietatea merkatu-unitate baten gisara hartzen da, zeren eta salmenten produkzio-kostuetan egiten duten ratioa, 2010-2012 aldirian, ehuneko 50eko irizpide kuantitatiboan gainditzen baitu; hala eta guztiz ere, 2013an, ez du baldintza hori betetzen.

Kontuen Ganberak, 2005ean, Orkoien Udalaren 2003ko ekitaldiari buruzko txosten bat argitaratu zuen. Gero, 2006an, txosten bat egin zuen Udalaren hirigintza-sozietateari buruz, hain zuzen ere 1998-2005 aldiari zegokionez.

Udalari 2013ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoak funtsean osagai hauek ditu: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere. Udalaren 2013rako aurrekontua 2013ko ekainaren 27an onetsi zen. Kontuei dagokienez, Udalaren Osoko Bilkurak 2014ko irailaren 24an onetsi zituen.

Sozietate publikoa, bere estatutuez gainera, toki-araubidearen araudi orokorrak eta indarrean dagoen merkataritza-araudiaz arautzen da, Merkataritza Kodeaz, Kapital Sozietateen legeaz eta Kontabilitate Plan Orokorraz, bereziki.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, lanaren helburuak azaltzen ditugu, eta hirugarrenean iritzia ematen dugu Udalaren eta haren sozietatearen kontuari buruz, legezketasunaren betetzeari buruz, egoera ekonomikoari buruz eta aurreko ekitaldietan emandako gomendioen betetzeari buruz. Laugarren atalean, Udalaren eta haren sozietatearen kontabilitateko egoera-orri nagusiak laburbiltzen dira. Azkenik, bosgarren eta seigarren ataletan, fiskalizazioaren ondorio aipagarrienak azaldu eta Udalaren eta haren sozietatearen kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ematen ditugu.

Udaleko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Parlamentu-eskaria kontuan hartuta, lan honen helburua da honakoei buruz daukagun iritzia ematea:

- Ea Udalaren eta haren sozietate publikoaren 2013ko ekitaldiko urteko kontuek Udalaren egoeraren irudi zehatza erakusten duten alderdi nabarmen guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2013ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian egindako eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzarioari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

- Zenbateraino bete den Udalak 2013an izandako jarduera ekonomiko-finantzarioari aplikatzekoa zaion legedia.

- Zein den Udalaren eta haren sozietatearen finantza-egoera abenduaren 31n.

- 2013ko aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuen betetzea.

- Ganbera honen 2005eko eta 2006ko fiskalizazio-txostenetan emandako gomendioen aplikazio-maila.

Txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzat jotzen diren aholkuak, Udalak eta haren sozietateak ezarritako barne-kontrolako sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate- nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edota osatzeko.

III. IRITZIA

III.1. ORKOIENGO UDALAREN 2013ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA.

Orkoiengo Udalaren 2013ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haien kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako IV. atalean.

Udalaren erantzukizuna

Alkatea da kontu orokorrak egiteko ardura duena. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

Udalak, gainera, bermatu beharko du finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela indarreko araudiarekin.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz. Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde publikoen fiskalizatorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta ardu-

radunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Finantzen eta legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako **iritzia** erartzen da.

III.1.1. 2013ko kontu orokorrari buruzko finantza-iritzia

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

Egoera-balantzean, ezin izan dugu ebidentziarik lortu "Ibilgetu materialaren" eta "Erabilera orokorrerako azpiegitura eta ondasunen" kontabilitate-saldoen arrazoizkotasunari buruz –2013ko abenduaren 31n, 191,82 eta 645,81 milioi eurokoak dira, hurrenez hurren–, zeren eta ez baitaude babestuta egoki gaurkotutako ondasunen inbentario orokor batean.

Iritzia

Gure iritzian, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" lerrokadan azaldutako egitatearen eraginengatik ez bada, erantsitako kontu orokorrek irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta Udalaren 2013ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

III.1.2. Legezkotasunaren betetzeari buruzko iritzia

Gure iritziz, Udalaren 2013ko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

III.2. ITURGAIN UDALAREN HIRIGINTZA SOZIETATEAREN 2013ko URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

III.2.1. Urteko kontuei buruzko finantza-iritzia

Gure iritziz, erantsitako urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten dute, sozietatearen ondareari eta finantza-egoerari dagokienez 2013ko abenduaren 31n, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko eragiketen emaitzei eta diru-fluxuei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzarioari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

III.2.2. Legezkotasunaren betetzeari buruzko iritzia

Iritziaren oinarria, salbuespenekin

2013an, sozietatearen Batzarrak erabaki zuen 2008ko maiatzetik bertan erakunde horretan lan egin zuen pertsona bakarraren kontratua amaitzea. Erabaki hori gorabehera, Batzarreko buruak erabaki zuen langilea diziplina-arrazoiengatik kaleratzea, Batzarrak erabakitakoaren aurka. Horrek, azkenean, kaleratze bidegabe bat ekarri zuen.

Kontu-hartzaitzak eragozpen-oharra egiteko txostena egin zuen arren, kaleratutako pertsonak 27.094 euroko kalte-ordaina jaso zuen; Batzarraren hasierako erabakia errespetatu izan balitz, ordea, 3.272 euro ordainduko zitzaizkion.

VI. atalean adierazi bezala, egitate horiek kontabilitate-erantzukizuna eragin lezakete.

Iritzia

Gure iritziz, "Iritziaren oinarria, salbuespenekin" lerrokadan azaldutako egitateen eraginarengatik ez bada, sozietatearen 2013ko ekitaldiko finantza-eragiketak eta sozietatearen egoera-orri finantzari-otan azaldutako informazioa bat datoz, garrantzizko alderdi guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

III.3. ORKOIENGO UDALAREN FINANTZA-EGOERA 2013ko ABENDUAREN 31n.**III.3.1. Udala**

Udalaren 2013rako hasierako aurrekontuak hiru milioi euro inguruko diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspenak zeuzkan. Aurrekontu-aldaketak 2,95 milioi eurokoak izan ziren, hasierako aurreikuspenen ehuneko 99 hain zuzen, funtsean inbertsioen aurreikuspenak 2,55 milioi gora egin zuelako; diru hori diruzaintzako gerakina sartuz finantzatu zen. Behin betiko diru-sarrerak eta gastuak 5,94 milioi eurokoak izan ziren.

2013an aitortutako betebeharrak 3,53 milioi eurokoak izan ziren, eta betetzearen eta ordainketaren portzentajea ehuneko 59 eta 94 izan ziren, hurrenez hurren. Betetzearen ehunekoa justifikatzen da aurreikusitako inbertsioen ehuneko 19 baizik ez zelako gauzatu.

2013an, aitortutako eskubideak 3,3 milioi eurokoak izan ziren, ehuneko 55eko eta 90eko betetze-eta kobrantza-portzentajeekin, hurrenez hurren. Kasu honetan, betetzeari buruzko zenbateko hain txiki horren arrazoa da diruzaintzako gerakina sartu dela, eta hori ez dela aitortutako eskubideetan islatzen.

Laburbilduz, Udalak 2013an gastatutako 100 euro bakoitza honaetara bideratu ziren eta honela finantzatu ziren:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantzabidea	Zenbatekoa
Langileak	37	Tributu bidezko diru-sarrerak	60
Bestelako gastu arruntak	48	Transferentziak	36
Inbertsio errealak	14	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	4
Finantza-aktiboak	1		

Aurreko taulatik, nabarmentzekoa da Udalak sortutako diru-sarreraren ehuneko 60 tributu-izaerakoak direla eta ehuneko 36, berriz, jasotako transferentziak direla. Gastuei dagokienez, langile-gastuek guztizkoaren ehuneko 37 egiten dute, eta gastu arrunten gainerakoak guztizkoaren ehuneko 48 egiten du.

Ondoren, 2010-2013 aldirako aurrekontu-betetzeari buruzko adierazle batzuk ematen ditugu:

3	2010	2011	2012	2013	2013/2010 urteetako aldea (%)	2013/2012 urteetako aldea (%)
Diru-sarrerak, guztira	4.135.080	3.620.343	3.168.729	3.290.631	-20	4
Gastuak, guztira	8.065.118	4.514.317	3.503.660	3.529.746	-56	1
Diru-sarrera arruntak	2.985.649	3.440.675	3.010.909	3.155.984	6	5
Gastu arruntak	2.915.324	2.908.982	2.891.640	3.026.284	4	5
Tributu bidezko diru-sarrerak	1.769.368	2.302.694	1.941.065	1.980.585	12	2
Funtzionamendu gastuak	2.915.324	2.908.982	2.891.640	3.026.284	4	5
Inbertsio garbia	5.085.789	1.543.179	607.622	489.952	-90	-19
Transferentzia arruntekiko mendekotasuna, ehunekotan	35	29	33	34	-2	4
Aurrezki gordina	70.325	531.693	119.270	129.701	84	9
Finantza-zama	0	0	0	0	-	-
Aurrezki garbia	70.325	531.693	119.270	129.701	84	9
Aurrekontu-emaizta doitua	721.124	881.936	202.689	191.969	-73	-5
Itundutako maileguak	0	0	0	0	-	-
Zor bizia	0	0	0	0	-	-
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.185.419	3.468.861	3.453.284	3.341.666	182	-3

2013an Udalak aitortutako eskubideen guztizkotik, ehuneko 96 diru-sarrera arruntetatik datoz.

Aitortutako gastuen osaerari dagokionez, ehuneko 85,7 funtzionamendu-gastuak dira; ehuneko 13,9 kapitaleko gastuak dira eta gainerako ehuneko 0,4a finantza-aktiboengatikoa gastuei dagokie.

Udalak funtzionamendu-gastuak diru-sarrera arrunten bidez finantzatu ondoren, 129.701 euroko aurrezki garbia lortu zuten; 2012an baino ehuneko bederatzi gehiago.

Ikusten da diru-sarrera garbiak nabarmen egin duela behera aztertutako aldian; izan ere, 2010ean 5,09 milioikoa izatetik 2013an 0,49 milioikoa izatera pasa da.

2010-2013 aldian, ez zen zor bizirik egon, ez eta finantza-zamarik ere. 2014an ere, ez da inongo mailegurik itundu.

2013an, Udalak 2,28 milioi euroko balioa zuten epe finkoko ezarpenak zeuzkan, 90.000 euro inguru diru-sarrerak ekarri zizkiotenak.

Bestalde, 2013ko ekitaldiaren itxieran sortutako gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina 3,34 milioi eurokoa izan zen, eta 2010ekoaren aldean ehuneko 182 egin zuen gora; 2012koaren aldean, ordea, ehuneko hiru egin zuen behera. Zenbateko horrek erakusten du likideziako gaindikin bat badagokela, hurrengo ekitaldietako gastuen finantzaketara bidera daitekeena.

III.3.2 Iturgain Udalaren Hirigintza Sozietatea

Honakoak dira Iturgain Udalaren Hirigintza Sozietateari buruzko 2013ko adierazle nagusiak:

Adierazlea	2012	2013	2013/2012 urteetako aldea (%)
Ondare garbia	2.760.218	2.808.246	2
Izakinak	1.080.500	1.080.500	0
Finantza-inbertsioak epe laburrera	1.090.000	1.480.000	36
Maniobra-funtsa	2.760.218	2.808.246	2
Negozioen zenbateko garbia	105.555	2.806	-97
Ekitaldiko emaitza	273.302	48.028	-82

Ikus daitekeen bezala, sozietateak ondare garbi positibo bat dauka, nahiz eta negozio-zifra oso txikia den (2012an, handiagoa izan zen, lurzati baten salmentaren ondorioz). Ez du zorrik ez epe laburrean, ez epe luzean.

Udalak bezala, diruzaintzako gaindikinak errentagarritasuna ematen dioten finantza-inbertsioetan ditu jarriak.

Sozietatearen maniobra-funtsa positiboa da bi kasuetan; horrek esan nahi du gauza dela epe laburreko ordainketa-konpromisoei aurre egiteko; nahiz eta higiezin merkatuaren egoerak ez duen eragiten izakin horiek irteera azkarra bermatuta edukitzea, adierazle horrek positiboa izaten jarraitzen du.

Ekitaldiaren emaitza positiboa izan da bi urteetan, nagusiki finantza-inbertsioetatik heldu diren diru-sarrerengatik.

III.4. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzearen eraginetarako, SEC'95 Kontabilitate Nazionalako irizpideak jarraituta, soilik Udala jotzen da administrazio publikotzat.

Udalak, 2013ko ekitaldian, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren hiru helburuetatik bi bete ditu; hartara:

- Entitateak 347.526 euroko finantzaketa-beharrak dauzka, hurrengo taulan jaso bezala:

	2013ko zenbatekoa
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	-232.161
Doikuntzak	
Itxitako ekitaldietako eta aurtengo ekitaldiko 1., 2. eta 3. kapituluetakoko diru-sarrerren kobrantzak	-94.123
Administrazio publikoen kapital-transferentziak	-21.242
Finantzaketa-beharrak	-347.526

• Entitateak gastuaren araua bete du, zeren eta 2013ko gastu zenbakarri likidatuak ez baititu legezko muga kuantitatiboak gainditu, 2012ko ekitaldiarekiko igoerari dagokionez. Hona xehetasunak (eurotan):

2012ko gastu zenbakarria	2.872.206
Gastu zenbakarria, ehuneko 1,7ko igoerarekin, 2013rako	2.921.033
2013ko gastu zenbakarria	2.888.702

- Udalak finantza-iraunkortasunaren printzipioa betetzen du, zorpetzerik ez duelako.

Azken batean, Orkoiengo Udalak gastuaren araua eta finantza-iraunkortasunaren printzipioa betetzen ditu, baina ez du betetzen finantza-egonkortasunaren baldintza. Ez-betetze hori zuzendu egin da plan ekonomiko-finantzario bat eginez; plan hori diruzaintza-gerakina aplikatzean datza.

Salmentek Udalaren sozietatearen produkzio-kostuetan egiten duen ratioak ehuneko 50a gainditu zuen 2010-2012 aldian; hori dela eta, ez da sartu Toki Administrazio Publikoaren sektorean. Erakunde honek aurrekontu-orekaren araua betetzen du, zeren eta emaitzen kontu positiboa baitu. Gogorazi behar da 2013an ez zuela bete ehuneko 50eko aipatutako ratioa.

Horrenbestez, Ganbera honek uste du Udalak egoera ekonomiko-finantzario saneatua duela, eta horrek aukera ematen diola egungo egoera ekonomikoari egoki erantzuteko.

III.5. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Oro har, egiaztatu dugu Ganbera honek Udalari eta haren sozietateari buruzko aurreko txostenean egindako gomendioak betetzen direla, oro har; halere, oraindik ere bete gabe jarraitzen dute, txosten honetako VI. atalean zehaztu bezala, Udalari buruzko honako gomendioak:

- *Araudian ezarritako legezko epeak betetzea aurrekontuak, kontu orokorra eta plantilla organikoa betetzeko garaian.*

- *Udalaren ondasunen inbentarioa gaurkotzea eta informazio hori balantzearekin lotzeko kontabilitate-prozedura diseinatzea.*

IV. 2013ko KONTABILITATEKO EGOERA-ORRIEN LABURPENA**IV.1. UDALAREN 2013ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA****IV.1.1. 2013ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria**

Gastu-aurrekontuaren betetzea Sailkapen ekonomikoa

Kontzeptua	Kap.	Hasierako kreditua	Aldaketak	Behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitortutako guztiaren gaineko ehunekoa
Langile-gastuak	1	1.259.430	130.921	1.390.351	1.322.225	1.304.360	737.657	95	37
Zerbitzuak eta ondasun arruntak erostea	2	1.429.470	77.827	1.507.297	1.418.190	1.277.756	10.360.902	94	40
Transferentzia arruntak	4	281.800	7.050	288.850	285.869	239.167	1.808.129	99	8
Inbertsio errealak	6	0	2.551.885	2.551.885	489.852	469.721	5.475.642	19	14
Kapital-transferentziak	7	0	182.511	182.511	0	0	2.311.862	0	0
Finantza-aktiboak	8	20.000	0	20.000	13.610	13.610	12.500	68	1
Gastuak, guztira		2.990.700	2.950.194	5.940.894	3.529.746	3.304.614	225.132	59	100

Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea. Sailkapen ekonomikoa

Kontzeptua	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobrantzak	Kobratzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitortutako guztiaren gaineko ehunekoa
Zuzeneko zergak	1	1.394.600	0	1.394.600	1.445.339	1.311.170	134.169	104	44
Zeharkako zergak	2	36.000	0	36.000	39.677	27.313	12.364	110	1
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3	407.900	2.050	409.950	495.570	379.123	116.447	121	15
Transferentzia arruntak	4	1.048.700	40.360	1.089.060	1.059.661	980.970	78.691	97	32
Ondare bidezko diru-sarrerak	5	83.500	0	83.500	115.738	115.481	257	139	4
Kapital-transferentziak	7	0	182.511	182.511	127.990	127.990	0	70	4
Finantza-aktiboak	8	20.000	2.725.273	2.745.273	6.656	6.656	0	0	0
Diru-sarrerak, guztira		2.990.700	2.950.194	5.940.894	3.290.631	2.948.703	341.928	55	100

IV.1.2. 2013ko ekitaldiko aurrekontuaren emaitza

Kontzeptua	2012ko ekitaldia	2013ko ekitaldia
Aitortutako eskubide garbiak	3.168.735	3.290.631
Aitortutako betebeharrak garbiak	-3.503.662	-3.529.746
Aurrekontu-emaitza	-334.927	-239.115
Doikuntzak		
Finantzaketaren desbideratze positiboa	-155.018	-127.990
Diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	692.651	559.074
Aurrekontu-emaitza doitua	202.706	191.969

IV.1.3. Diruzaintza-gerakina 2013ko abenduaren 31n

Kontzeptua	2012ko ekitaldia	2013ko ekitaldia	Aldearen ehuneko
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	3.935.708	3.060.976	-22
(+) Aurrekontuko diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	301.125	342.113	
(+) Aurrekontuko diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	408.798	418.315	
(+) Kobratzeko dauden itzulketak	12.845	-1.729	
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	3.213.237	2.302.520	
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-297	-243	
(+) Bilketa zaileko eskubideak	-171.457	-378.347	121
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	-461.763	-325.945	-29
(-) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	-338.668	-225.132	
(-) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	-5.710	-8.071	
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	-117.385	-92.555	
(-) Egiteke dauden itzulketak	0	-187	
(+) Diruzaintzako funts likidoak	783.867	1.281.251	63
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	916.573	788.582	-14
= Diruzaintza-gerakina, guztira	5.002.928	4.426.517	-11
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuen arabera	0	0	-
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	1.549.641	1.084.851	-30
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	3.453.287	3.341.666	-3

IV.1.4. Egoeraren balantzea, 2013ko abenduaren 31n

Aktiboa	2012ko zenbatekoa	2013ko zenbatekoa	Pasiboa	2012ko zenbatekoa	2013ko zenbatekoa
A Ibilgetua	838.043.185	838.571.833	A Funts berekiak	842.302.575	842.611.225
1 Ibilgetu materiala	191.387.286	191.820.111	1 Ondarea eta erreserbak	831.629.385	831.846.613
2 Ibilgetu ez-materiala	938.959	943.526	2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	178.432	141.864
3 Erabilera orokorrerako azpiegitura eta ondasunak	645.716.940	645.808.196	3 Kapitaleko diru-laguntzak	10.494.757	10.622.747
C Zirkulatzaila	4.721.449	4.365.580	D Epe laburreko hartzekodunak	462.060	326.188
8 Zordunak	3.936.005	3.075.798	5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	461.763	325.945
9 Finantza-kontuak	785.444	1.289.782	6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	297	243
Aktiboa, guztira	842.764.635	842.937.413	Pasiboa, guztira	842.764.635	842.937.413

IV.1.5. Ekitaldiko emaitza arruntak, 2013-12-31n

Deskribapena	2012	2013	Deskribapena	2012	2013
61 Langile-gastuak	1.245.890	1.328.742	70 Salmentak	167.473	144.798
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	1.347.782	1.411.673	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	341.175	408.935
67 Transferentzia arruntak	297.973	285.869	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	1.076.835	1.126.261
			73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	326.622	323.289
			76 Transferentzia arruntak	980.161	1.059.661
			77 Kapitalaren gaineko zergak	87.900	35.466
			78 Bestelako diru-sarrerak	30.731	57.575
80 Ekitaldiko emaitza arrunta			80 Ekitaldiko emaitza arrunta	119.253	129.700
82 Ekitaldiko emaitza berezia	116	248	82 Ekitaldiko emaitza berezia (saldo hartzekoduna)		
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa			84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	59.295	12.412
D89 Ekitaldiko emaitza ekonomiko negatiboa	-	-	H89 Ekitaldiaren emaitza ekonomiko positiboa	178.432	141.864

IV.2. SOCIEDAD URBANÍSTICA MUNICIPAL ITURGAIN, S.A.REN URTEKO KONTUAK

IV.2.1. Egoeraren balantze laburtua, 2013-12-31n

Aktiboa	2012ko zenbatekoa	2013ko zenbatekoa	Ondare garbia eta pasiboa	2012ko kopu-2013ko zenbatarua	2013ko zenbatekoa
Aktibo arrunta	2.762.989	2.810.153	Ondare garbia	2.760.218	2.808.246
Izakinak	1.080.500	1.080.500	Kapitala	210.354	210.354
Merkataritza-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk	7.630	10.270	Erreserbak	2.276.561	2.549.864
Epe laburreko finantza-inbertsioak	1.090.000	1.480.000	Ekitaldiko emaitza	273.302	48.028
Zirkulatzaila	4.721.449	4.365.580	Pasibo arrunta	2.771	1.907
Eskudirua eta bestelako aktibo likido balio-kideak	584.859	239.382	Epe laburreko zorrak	390	454
			Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko dauden beste kontu batzuk	2.381	1.453
Aktiboa, guztira	2.762.898	2.810.153	Pasiboa, guztira	2.762.898	2.810.153

IV.2.2. 2013-12-31ko galeren eta irabazien kontu laburtua

(ZOR)/HARTZEKO	2012	2013
Negozioen zenbateko garbia	105.555	2.806
Hornidurak	-43.342	-
Bestelako ustiatzeengatikoko diru-sarrerak	292.124	-
Langile-gastuak	-34.557	-64.390
Bestelako ustiatze-gastuak	-66.017	-9.532
Beste emaitza batzuk	-	6.740.946
Ustiapeneko emaitza	253.762	6.669.830
Diru-sarrera finantzarioak	20.088	119.181
Tresna finantzarioak besterentzetik heldu den emaitza eta narriadura	-	-6.740.872
Emaitza finantzarioa	20.088	-6.621.691
Zerga aurreko emaitza	273.850	48.139
Mozkinen gaineko zerga	-548	-111
Ekitaldiko emaitza	273.302	48.028

V. ORKOIENGO UDALARI BURUZKO ONDORIO ETA GOMENDIOAK

Atal honetan deskribatzen dira erregularitasunari buruz egindako fiskalizazioaren harira lortutako ondorio nagusiak, bai eta Udalaren kudeaketa ekonomikoa hobetzeko gomendioak ere.

V.1. ALDERDI OROKORRAK

2013ko aurrekontua 2013ko ekainean onetsi zen, eta 2013ko ekitaldiko kontu orokorra 2014ko irailaren 24an onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak.

Balantzean, ibilgetu materialaren saldoa eta erabilera orokorrerako inbertsioen saldoa 191,82 eta 645,81 milioi eurokoa dira, hurrenez hurren. Inbentarioaren azken gaurkotzea 2001. urtean egin zen.

Ez da aurkitu 2013ko fakturarik, zenbateko adierazgarriekin, 201eko aurrekontuari egotzi zaionik.

Ez dago jasota berandutza-interesik ordaindu zaienik hornitzaileei legezko epean ordaintzeko betebeharra ez betetzeagatik.

Udalaren banku-kontuetako batean, baimendun bakar gisa alkatea ageri da, eta beste batean, berriz, aurreko alkatea ageri da kontu-hartzailearekin batera. Bi kasuetan, kontuak ez dira asko erabiltzen.

Gure gomendioak:

- *Aurrekontuaren likidazio-espeditatea eta Kontu Orokorra arauz ezarritako epean onestea.*
- *Inbentarioa gaurkotzea, hura etengabe gaurkotuta egoteko prozedurak eta kontabilitatearekiko lotura egokia diseinatuz.*
- *Aktiboan dauden pertsonen banku-kontuen sinadura mankomunatua exijitzea edo erabiltzen ez direnak deuseztatzea.*

V.2. LANGILE-GASTUAK

Langile-gastuak 1,32 milioi eurokoak izan ziren 2013an. Ekitaldi horretan aitortutako betebeharren gutzitza baina ehuneko 37 egiten dute. Haien exekuzio maila behin betiko kredituen ehuneko 95 da. 2012koak baino ehuneko zazpi handiagoak izan ziren, nagusiki ekitaldi horretan ez zelako abenduko aparteko ordainsariaren gastua aitortu; 2013an, berriz, ekitaldiko biak gehi 2012an jaso gabekoaren konpentsazio-osagarri bat aitortu ziren.

Honakoak dira 2013an sortutako langile-gastuak, kontzeptu ekonomikoen arabera sailkatuta:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2012)	Aitortutako betebeharrak (2013)	Aldea (%)
Hautetsien lansariak	50.713	55.458	9
Funtzionarioen ordainsariak	532.387	627.738	18
Lan-kontratupekoen soldadak	109.523	96.484	-12
Aldi baterako lan-kontratupekoen lansariak	151.770	158.958	5
Kuota sozialak	371.979	363.245	-2
Gastu sozialak	20.409	20.342	-0,3
Langileria-gastuak, guztira	1.236.871	1.322.225	7

Udalak 2013ko ekainean onetsi zuen urte horretako plantilla organikoa.

Plantillak 30 lanpostu dauzka; horietatik 23 funtzionarioei dagozkie. Horietatik lau hutsi daude eta zazpi lan-kontratu finkoa duten langileek betetzen dituzte.

2013ko abenduaren 31n, Udalean 35 pertsonak egiten zuten lan. Kopuru hori handixeagoa da plantillan dagoena baino, funtsean une horretan langileen bajak zirela-eta behar ziren ordezkapenen ondorioz.

Langile gastuen, nomina lantzeko eta kontabilizatzeko prozeduraren eta nominen lagin baten azterketa orokorretik, honako ondorioak atera ditugu:

- Kasu ia guztietan, gizarte segurantzarentzako kotizazioen oinarriek garrantzi handikoak ez diren akatsak dauzkaten beren kalkuluan, eta ez dute betetzen 2010ekko ekaineko lansarien gutxitzearen ondoren ezarritako araudia.

- Bi pertsona badaude kontratu administratiboan dutenak eta hirurtekotan kalkulaturako antzinatasuna kobratzen ari direnak, nahiz eta 2009an onetsi zen eta aplikatzekoa den araudiaren arabera bosturtekotan kalkulaturakoa kobratu beharko luketen. Halaber, horietako bat familia-laguntza jasotzen ari da, araudian ezarritakoaren aurka. Horri dagokionez, alkatetzaren ebazpen bat badago, Udaleko idazkariaren txosten batean oinarritua, non berariaz onesten duen kontzeptu horiei dagozkien ordainsariak ordaintzea.

2014ko apirilean, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak Udalarari eskatu zion egoera hori erregulatzeko. Horri dagokionez, entitate horrek mantendutako irizpidea, data bereko txosten baten arabera, izan da hirurtekoen ordainketari eta familia-laguntzari eustea, langile horien ordainsariak berdintze aldera. Erantzun hori jasota, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariak foru agindu bat onetsi zuen 2014ko maiatzean, non ezarri baitzuen Orkoiengo udalak 2014ko plantilla organikoa onesteko hartutako erabakia administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkeztu beharra dagoela, administrazio-kontratupeko araubidean zerbitzuak ematen dituzten langileentzat hirurtekoak ezartzeari dagokionez.

- Aztertutako kasu gehienetan, PFEZarengatiko atxikipenak, nominan egindakoak, aplikatzekoa den araudian aurreikusitako gorakoak dira; ez dago jasota enplegatutak hala eskatua duenik.

- Gradu-aitorpenak ez dira ebazpen bidez egiten, eta ez daude berariaz jasota.

- Laneko arriskuen prebentzioari buruzko azterlan bati dagokion 5.541 euroko gastu bat badago, gastuen 2. kapituluaren kontabilizatu behar zena.

- 2013an, langileei konpentsazio-osagarri bat ordaindu zitzaizkien, kendu zitzaizkien 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren berdina. 28/2012 Foru Legeak, zeinak osagarri hori ordaintzea bideratzen baitzuen, 2013ko urtarrilaren 3an hartu zuen indarra, NAO-n argitaratu eta biharamunean, eta horrek zalantzak planteatu izan ditu 2012rako aurreikusten dituen neurrien baliozkotasunari buruz. Hori dela eta, "2013an foru lege hori aplikatuz Nafarroako toki entitate batzuek hartutako neurrien segurtasun juridikoa bermatzeko", Nafarroako Parlamentuak uztailaren 2ko 25/2013 Foru legea onetsi zuen, zeinak 28/2012 Foru Legea aldatzen baitu, 2013ko abuztuaren 31ra arte luzatzen baitu Nafarroako administrazio publikoek beren langileei ordainezko osagarria pagatzeko. Foru lege horren aurka, uztailaren 30ean, konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa aurkeztu da, Konstituzio Auzitegiak onetsia; izan ere, auzitegi horrek haren aplikazioa bertan behera utzi du 2013ko irailaren 14an. Kontraesanean dagoen araudia eta aurkeztutako errekurtsioak direla eta, jotzen dugu egoera honetarako behin betiko konponbidea erakunde judizial eskudunen ebazpenen menpe egonen dela.

Gure gomendioak:

- *Plantilla organikoa eta langileen zerrenda behar den epean eta araudian adierazitako edukiarekin onestea.*

- *Kotizazio-oinarrietan kasuko doikuntzak egitea.*

- *PFEZa dela-eta araudian ezarritakoak baino atxikipen handiagoak eginez gero, hori jasota uztea.*

- *Udaleko langileek gradua dela-eta izandako igoeren aitortzen onesteko berariazko ebazpena ematea.*

- *Lan arriskuen prebentziorako egindako azterlanei dagokien gastua gastuen 2. kapituluaren kontabilizatzeko.*

V.3. ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK EROSTEA.

Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak 1,42 milioi eurokoak izan ziren 2013an. 2013an aitortutako betebeharren guztizkoaren ehuneko 40 egiten dute. Haien exekuzio maila behin betiko kredituen ehuneko 94 da. 2012an aitortutako gastuak baino ehuneko bost handiagoak izan ziren.

Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuetako kontusailak, 2013ko ekitaldian zenbateko handiagoa izan zutenak, honakoak dira:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2012)	Aitortutako betebeharrak (2013)	Aldea (%)
0-3 urtekoen ikastetxearen kudeaketa	349.980	325.925	-7
Argiteria publikorako energia elektrikoa	115.834	110.380	-5
Ekaineko jaiak	82.509	73.228	-11
Kale-garbiketaren zerbitzua	-	66.009	-
Industrialdeen mantentzea	67.388	61.810	-8
Legelariei egindako kontsultak eta gastu judizialak	11.115	54.735	392
Gazteentzako programa	43.351	42.639	-2
Lorezaintzako lan teknikoak	35.165	36.210	3
Udal ludoteketarako laguntza-kontratua	36.181	36.065	-
Hirigintzaren arloko aholkularitza zerbitzua	41.313	34.336	-17

Gastuen honako lagina fiskalizatu da –kapituluko gastu guztien ehuneko 38 egiten du–:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2013)
0-3 urtekoen ikastetxearen kudeaketa	325.925
Kale-garbiketaren zerbitzua	66.009
Industrialdeen mantentzea	61.810
Legelariei egindako kontsultak eta gastu judizialak	54.735
Lorezaintzako lan teknikoak	36.210
Guztira	544.689

Gainera, helduentzako euskara eskolen eta jaietarako orkestren esleipena aztertu dira. Bi kasuetan, European publizitaterik egin gabeko prozedura negoziatua jarraitu da: hiru enpresari eskatu zaizkie eskaintzak eta aipatutako zerbitzuak 12.267 eta 19.650 euroan (BEZik gabe) esleitu dira, hurrenez hurren.

Egindako azterketan, egiaztatu da gastu guztiak behar diren fakturekin edo/eta kontratuekin justifikatuta daudela, egoki kontabilizatu direla eta aplikatzekoa den araudia arrazoiz errespetatu dela; hala eta guztiz ere, honako salbuespenak aipatu behar ditugu:

- Lorezaintzako lan teknikoak hileroko fakturatan daude oinarrituta, baina ez da inongo kontratazio-prozedurarik egin. 2014an, gabezia horri konponbidea eman zaio.
- Euskara eskolen zerbitzua 2009tik 2013ra kontraturik gabe eman zen. Egoera hori erregularizatu zen aztertutako laginean ageri den esleipenaren bidez.
- Euskara eskolen finantzaketan, Oltza Zendeako Udalak eta Etxauriko Udalak hartzen duten parte, zeren eta ikasle batzuk udalerririk horietakoak baitira: gastua, izan ere, toki entitate bakoitzeko erabiltzaileen kopuruaren arabera banatzen da. Horri dagokionez, aipatu beharra dago 2012-2013 ikasturtean, izena emandako 19 ikasleetatik 11 Orkoiengoak direla, bi Oltza Zendeakoak, bat Etxaurikoa eta bost beste udalerririk batzuetakoak; azken horietako udalek ez dute zerbitzuaren finantzaketarako laguntza eman.

Gure gomendioak:

- *Araudian jasotako kasuetan, behar diren kontratazio prozedurak egitea.*
- *Finantzaketan parte hartzen ez duten udalerrietakoak izan eta euskara eskoletara doazen ikasleei tasaren ehuneko ehuna ordain dezaten exijitzea.*

V.4. UDAL INSTALAZIOEN KUDEAKETA.

Ondoren, udal instalazioen kanpoko kudeaketari buruz egindako azterketa deskribatzen dugu. Kirol instalazioak eta ludoteka dira hain zuzen.

Kirol instalazioak

2012ko maiatzean, sei eskaintza jaso ondoren, zeharkako kudeaketa esleitu zen Orkoiengo Mendi-kur kirolgunearen, igerilekuaren eta kiroldegiaeren zerbitzu publikoaren ustiaketa errentan emanaz Actividades Físicas y Culturales Urdi, S.L. enpresari, sei urterako.

Kontratazio Batzordean esleipenaren aurkako errekurtsua aurkeztu zuten bi lizitzailek, zeren eta ez baitzeuden ados eskaintza bakoitzari esleitutako puntuazioekin; errekurtsua ezetsi egin zen.

Orrien 9. klausula betez, 50.000 euroko behin betiko berme bat eratu zen, bestiak beste lizitzailek beren eskaintzan aurkeztu beharreko inbertsio-planaren betetzeari atxikia. Inbertsio proposamen horiek baloratzeko, 100 puntutik gehienez ere bederatziz eman ahal ziren.

2013an, kontratu hori dela-eta Udalak aitortutako gastuak 66.735 eurokoak izan ziren, honako xehetasun hauen arabera:

Gastuaren kapitulua	Kontzeptua	Zenbatekoa
2	Igerilekuen kontserbazioa eta ohiko konponketak	7.124
	Kirol zerbitzuaren inbertsioak ez den materiala	483
	Kirol jardueren kudeaketa	31.686
6	Udal-igerilekuetan egindako inbertsioak	23.259
	Padel pistak estaltzea	3.189
	Kiroldegian egindako inbertsioak	994
Guztira		66.735

Egiaztatu dugu aurreko gastu guztiak behar diren fakturekin edo/eta kontratuekin justifikatuta daudela, egoki kontabilizatu direla eta aplikatzekoa den araudia arrazoiz errespetatu dela; hala eta guztiz ere, honako salbuespenak nabarmendu behar ditugu:

- Udal igerilekuetako inbertsio-gastuak bere baitan hartzen du tabernarako elektratesna batzuk erostea: 5.692 euroko kostua dute (BEZik gabe). Horri dagokionez, kontu-hartzailearen eragozpen-ohar bat badago, non aipatzen baitu 2012ko iraileko eta azaroko aktetan Udalak, kudeaketa-kontratuaren aurreko esleipendunarekin eta oraingo esleipendunarekin batera, ezarri zutela zein gastu nori zegozkion, instalazioen egoera aztertu ondoren.

Zehazki, Udalak bere gain hartu zuen tabernako elektratesnetako batzuen konponketen ehuneko 50; ez zen, ordea, onetsi toki entitateak inongo elementu ordezteak: halakorik ez zegoen aurreikusita baldintza-orrietan. Hori dela eta, kontu-hartzaileak erakutsi zuen ez zegoela ados gatu horrekin eta Osoko Bilkurari eskatu zion egokientzat jotzen zuena erabaki zezan; azkenean, horrek bere gain hartzea erabaki zuen.

- Padel pistak estaltzeari dagokionez, ondoren kontaktzen dugu gertatutakoa.

2013ko uztailan, kirolgunearen kudeaketaren esleipendunak laguntza edo diru-laguntzaren bat eskatu zuen instalazioaren finantza-oreka bilatzeko, pertsona fisikoei kirola edo heziketa fisikoa dela-eta emandako zerbitzuen BEZaren tasa gora egitearen ondorioz; izan ere, tasa hori ehuneko zortzikoa izatetik ehuneko 21era pasa zen. Erakunde horrek adierazi zuen araudiaren aldaketa horrek 80.000 euro gutxiago suposatuko behar zuela ustiaketa kontuan.

2013ko abuztuan, kontu-hartzailetzaren txosten batek ondorioztatu zuen Udalak ez duela zertan inguruabar hori diruz lagundu, zeren eta emandako datuetatik ez baita eratortzen esleipendunaren bideraezintasuna. halaber, hiru aukera jasotzen ditu sor litekeen defizita orekatzeko: erabiltzaileek BEZaren igoera hori beren gain hartzea; enpresak bere gain hartzea, etekin-tarte txikiagoak aplikatuz, kontuan hartuta kontratua arrisku eta menturara zela; edo, hirugarren aukera gisa, Udalak bere gain hartzea, nahiz eta baldintza-orrietan halakorik aurreikusitakoa ez. Txostenaren amaieran, honako testua ageri da:

“...besterik da Udalak errentariarentzat adostea instalazioko inbertsioren bat zuzenean bere gain hartzea (ez aurrerakin gisa), hartara arinduz ustiaketa-kontuaren gastuak eta kirolgunearen bideragarritasunerako laguntza emanez...”.

2013ko irailean, esleipendunak Udalari eskatu zion padel pistak estaltzeko aukera azter zezan, neguko aldirako, adieraziz horrek balizko diru-sarrerak nabarmen handi lezakeela. Enpresak, 2015eko eskaintzan, inbertsio hori egiteko konpromisoa hartua zuenez, honakoa adierazi zuen, Udalak obra hori egitea erabakitzeke kasurako:

“...unea iritsita, aztertuko litzateke instalaziorako inbertsiorik bideragarriena eta gomendagarriena, dagoenaren orde...”.

2013ko urrian egindako Osoko Bilkuran, aurrekontu-aldaketa bat onetsi zen, inbertsio bat egiteko, zeinak 94.100 euroko aparteko kreditu bat baitzekarren, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinaren kargura.

Espedientean ez dago jasota inongo justifikaziorik, egin beharreko gastua hurrengo urtera arte ezin gerora zitekeena esaten zuenik, Udalaren aurrekontuko 10. betetze-oinarriak exijitzen duenari jarraituz.

2013ko azaroan, Bildu-Nafarroako zinegotziak berraztertzeke errekurtsioa aurkeztu zuen aurreko erabakiaren aurka, eta azken hori ezetsi egin zen.

2013an, aurrekontuari 3.189 euroko gastua egotzi zitzaion; proiektuaren idazketari zegokion. Zebateko horretatik, 533 euro kasuko fakturaren BEZari zegokion; kopuru hori ez zitzaion aurrekontuari egotzi behar. 2014an, aitortutako gastu guztiak 75.089 euro egin zuen.

Gure iritziz, Osoko Bilkuraren 2013ko urriko erabakiak, non padel pistak estaltzea erabaki zuen, kontratu-aldaketa bat da, zeina ez baitator bat kontratu hori arautzen zuten orriekin.

Kirol instalazioen kudeaketarako kontratuari dagozkion gastuez gainera, horrelako instalazioekin lotutako beste batzuk badaude, 2013an 48.661 euro egin zutenak; hona xehetasunak:

Gastuaren kapitulua	Kontzeptua	2013ko zenbatekoa
2	Kirol-instalazioen alokairua	28.616
4	Kirol Sport kirol eskolarekiko hitzarmena	20.045
Guztira		48.661

Aurreko gastu guztia lotuta dago 2013ko martxoan Kirol Sport Kirol Eskolarekin sinatutako hitzarmen batekin, hain zuzen ere Orkoienen kirola sustatzeko. 2012-2013 aldirako kontratua zen. Hitzarmen horrek entitate horrentzako laguntzak aurreikusten zituen; horretarako bi kontusail gaitu ziren Udalaren aurrekontuan: bata kirol eskolen jarduerak diruz laguntzeko eta bestea kudeaketaz arduratzen den enpresari kirol instalazioen alokairua ordaintzeko.

Bai 2012-2013 aldia arautzen duen hitzarmenaren aurka, bai haren luzapenaren aurka, errekurtsioak aurkeztu zituen Bildu-Nafarroako zinegotzi batek Nafarroako Administrazio Auzitegian. 2013ko urrian, bi errekurtsio horiek ezetsi egin ziren.

Aurreko gastuak aztertu eta berrikusi ondoren, ondoriozta dezakegu guztiak ere justifikatuta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta aplikatzekoa den araudia arrazoiz bete dela; hala eta guztiz ere, honako alderdiak nabarmendu nahi genituzke:

- Kontraesan batzuk badaude gastuak aurkezteko epeen betekizunarekin (urtarrila), haien ordainketaren (urtarrila) eta hitzarmenaren sinaduraren (martxo) artean; horrek zaildu egiten du klausulak bete ahal daitezela.

Horri dagokionez, aipatu beharra dago ezen Udalak hurrengo aldietarako hitzarmenaren sinadurarako izapideak arindu dituela, eta horrek bideratu duela gaur egun ia epe guztiak betetzea.

- Bat ez-etortze batzuk badaude eskola-gastuen ziurtagiriak erregistroan sartu ziren dataren (maiatzaren 24a) eta haien dataren artean (maiatzaren 31).

- Jada aipatu den bezala, hitzarmenak jasotzen du kirol eskolak eskubidea duela kirol instalazioak doan erabiltzeko. Estipulazio hori betez, aurreko urteetan, instalazio horiek erabiltzeko fakturak Udalaren izenean emititzen ziren, eta Udala zen kudeaketaren ardura duen enpresari ordaintzen zizkiona.

2013an, aldaketa bat izan zen ordaintzeko moduan, eta fakturak kirol eskolaren izenean egiten hasten dira; kirol eskola horrek Udalari igortzen dizkio eta azken horrek ordaintzen ditu.

Osoko Bilkurak aldaketa horretarako ematen duen arrazoia da ordainketa modu horrek Udalari aurrezki bat ekartzen diola, zeren eta, azaltzen ezinezkoa den modu batez, jardueren ordu bakoitzeko kostua txikiagoa baita kirol eskolarako Udalerako baino; ez dago jasota, ordea, azken horrek horren inguruan inongo jarduketarik egin izana.

- 2013ko urrian, Bildu-Nafarroako zinegotzi batek gora jotzeko errekurso bat aurkeztu zuen Nafarroako Administrazio Auzitegian, Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren aurka –erabaki horrek onesten zuen Kirol enpresak kirol instalazioak alokatzeko ordaintzen zuen kostua Udalak bere gain hartzea–. Erabaki horren aurkako errekurtsorako alegatutako arrazoen artean honakoak zeuden: jotzea Udalak ordainketa hori egitea diru-laguntza bat zela, ordaintzeko modua aldatzearen ondoriozkoa; ez zela lehiarik izan; eta gastu horiek ordaintzera bideratutako kontusailaren zenbatekoa gainditu izatea. 2014ko urtarrilean, Nafarroako Administrazio Auzitegiak errekurso hori ezetsi zuen.

Ludoteka

Kirol instalazioez gainera, Udalak ludoteka zerbitzua ere ematen du, zeharka bada ere.

Zehazki, honakoak dira prestazio hori arautzen duen egungo kontratuaren datu adierazgarrienak – 2012an esleitu zen–:

Kontzeptua	Prozedura	Esleipen-irizpidea	Lizitazaile kopurua	Lizitazio kontratuaren kalkulaturako balioa, BEZik gabe	Esleipen kontratuaren kalkulaturako balioa, BEZik gabe	Esleipenaren baja (%)
Udal ludoteka	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	Eskaintzarik onena	4	151.852	128.800	15

Esleipen-espedita aztertuta, ondoriozta daiteke aplikatzekoa den araudiari egokitu zitzaiola; halaber, 2013an aitortutako gastua, 35.420 eurokoa, kontratuan ezarritakoari egokitu zitzaien eta zuzen kontabilizatu zen:

Gure gomendioak:

- *Zorrotz betetzea kontratuak arautzen dituzten baldintza-orriak, haietan baimenduta ez dauden aldaketak egin gabe.*
- *Ez kontabilizatzea aurrekontu-gastu gisa jasandako BEZa, jasotako ondasun eta zerbitzuei dagokiena.*
- *Kirol eskolarekiko hitzarmenean ezarritako epeak betetzeko hasitako prozesuarekin jarraitzea.*

V.5. UDALAREN INBERTSIOAK

Udalak 2013an egindako inbertsioek 489.852 euro egin zuten. Zenbateko hori Udalak ekitaldian egindako gastu guztien ehuneko 14 da. Haien exekuzio maila behin betiko kredituen ehuneko 19 da.

Honako inbertsioak fiskalizatu ditugu –2013an egindako inbertsio guztien ehuneko 55 egiten dute–:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak (2013)
Gizarte-etxea	189.422
San Miguel ikastetxe publikoko inbertsioak	55.775
Etxauriko errepideko urbanizazioa	25.267

Aurreko inbertsioetatik, honako obra esleitu zen 2013ko ekitaldian:

Kontzeptua	Prozedura	Zenbat lizitatuak	Lizitazio-prezioa, BEZik gabe	Esleipen-prezioa, BEZik gabe	Esleipenaren baja (%)
Etxauriko errepideko urbanizazioa	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	12	1.010.098	707.068	30

Egindako azterketatik ondorioztatzen da gastuak egoki esleitu, izapidetu, kontabilizatu eta justifikatu direla. Dena den, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- Gizarte-etxeari dagokion kontusailean kontabilizatutako gastua epai batek eragindakoa da; epai horretan, izan ere, Udala zigortzen da enpresari 169.131 euro ordaintzera egindako unitate berriengatik, gehi berandutza-interesei zegokien 9.508 euroko kopurua. Gainerako 8.743 euroak apelazio-kostuen ordaintzari dagozkie. Bai interesak, bai kostu horiek ez dute ez dute ibilgetuaren atalak. Gastuen kapitulu honetan erregistratu ziren.

Horri dagokionez, lanbide-erantzukizuneko espediente bat badago, obra zuzendariaren aurkakoa; haren bidez, Udalak 69.000 euro erreklamatu zizkion. Gaur den egunean, espediente horren aurkako errekurtsioa aurkeztua dago; horren epaia emateko dago.

- Etxauriko errepideko urbanizazio lanei dagozkien kontu-hartzaitzaren txostenetan aipatzen zen lan horiek Iruñerriko Mankomunitatearekin batera finantzatuko direla hitzarmen baten bitartez, baina ez dira aipatzen horretarako baliatuko diren bi kontusailak.

- Etxauriko errepideko urbanizazio-lanen esleipendunari exijitutako behin betiko fidantza esleipen-zenbatekoaren ehuneko laukoa izan zen, kopuru horretan BEZa sartuta.

- Aurreko urbanizazioaren kontratazio espediente arruntzat kalifikatu zen. Hala eta guztiz ere, gero urgentziakotzat jo zen, nahiz eta horrek ez zuen inongo aldaketarik ekarri ez klausuletan, ez ku-deaketa-epeetan. Izan ere, kontratua esleipena izan eta 81 egunen buruan sinatu zen, nahiz eta gehienez ere bi hilabeteko epean sinatu behar zen –hartara ebatzita geratuko zen–.

- Halaber, aurkitu da idazkaritzaren eta kontu-hartzaitzaren zenbait txostenetan data falta dela.

Gure gomendioak:

- Legezko interesengatik eta apelazio-kostuengatik gastuak gastu arrunt bezala erregistratzea.
- Kontratuen bermearen fidantza exijitzea, araudian ezarritako kopuruaren arabera.
- Aurrekontu-funtsez baliatzea suposatzen duten kontu-hartzaitzaren txostenetan, gastuaren zenbatekoarekin batera hura finantzatzeko kontusailak identifikatzea.
- Kontratazio araudian ezarritako prozedura errespetatzea, urgentziakotzat jotzen diren espedienteen kasuan.
- Jasota uztea Udaleko langileek egindako txosten teknikoak zein egunetan egiten diren.

V.6. TRANSFERENTZIA ARRUNTENGATIKO GASTUAK

2013an, Udalak transferentziengatik eta diru-laguntzengatik izandako gastuak –guztiak ere arruntak– 285.869 eurokoak izan ziren, eta honakoak izan ziren onuradunak:

Entea	Arruntak	
	Aitortutako bete-beharra 2013	Aldea (%) 2012/13
Udalak	90.000	-0,15
Mankomunitateak	105.510	-3
Familiak	17.938	-34
Irabazi asmorik gabeko erakundeak	72.421	-21
Guztira	285.869	-4

Transferentziek Udalaren gastu guztien ehuneko zortzi egin zuten 2013an. Ehuneko lau egin zuten behera 2012ko gastuaren aldean; exekuzio-gastuak, berriz, behin betiko kredituen ehuneko 99 egin zuten.

Gastuen honako lagina fiskalizatu da –guztizkoaren ehuneko 75 egiten du–:

Kontzeptua	Aitortutako bete-beharra, guztira	Onuradunen kopurua
Iruñerriko Mankomunitateari egindako ekarpena	105.510	1
Oltza Zendeako eta Orkoiengo musika eskolarako ekarpena	90.000	1
Prestazio sozialak eta jantokirako beka	17.938	6

Egindako azterketatik ondoriozta dezakegu ezen, orokorrean, emandako eta ordaindutako transferentzia eta diru-laguntza guztiak aplikatzekoa den araudiaren arabera egin direla eta zuzen kontabilizatu direla; alabaina, jantokirako beken kasuko deialdia 2000n onetsi zen eta ez da eguneratu.

Gomendatzen dugu jantokiko beketarako diru-laguntzak emateko deialdia eguneratzea.

V.7. TRIBUTUAK, PREZIO PUBLIKOAK ETA BESTE DIRU-SARRERA BATZUK

Tributuengatik, prezio publikoengatik eta bestelako diru-sarrerengatik 2013an aitortutako eskubi-deek 1,98 milioi euro egin zuten behera. Udalaren diru-sarrera guztien ehuneko 60 dute, eta honakoei dagozkie:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak (2013)	Betetakoa (%)	2013/2012 urteetako aldea (%)
Zuzeneko zergak	1.445.339	104	-1
Zeharkako zergak	39.677	110	41
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	495.570	121	10
Guztira	1.980.585	108	2

Ikusten den bezala, diru-sarreraren multzoa 2012ko antzeko mailetan jarraitzen du: ehunek bi inguru egin du gora.

Hurrengo taulak erakusten du, udal zerga bakoitzari errepararuta, zein izan diren 2013an eta 2012an aitortutako eskubideak:

Kontzeptua	Aitortutako eskubi- deak (2012)	Aitortutako eskubi- deak (2013)	2013/2012 urtee- tako aldea (%)
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	776.966	799.491	3
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	2.622	2.622	-
Ibilgailuak	326.622	323.289	-1
Lurren balioaren igoeraren gaineko zerga	87.900	35.466	-60
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	269.164	284.470	6
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	28.083	39.677	41
Guztira	1.491.357	1.485.015	-0,4

Udal zergen bidez 2013an Udalak lortutako diru-sarreraren guztizkoa 2012ko bera da ia. Nabarmen-
tzekoa da EIOZak gora egin duela eta behera egin duela, berriz, lurren balio-gehikuntzaren gaineko
zergak; halere, zerga garrantzitsuenek antzeko mailetan jarraitzen dute.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortaren tarte
ertain-altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	0,2119	0,10 - 0,50
Landa-lurren gaineko kontribuzioa	0,8000	
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2,7tik 3ra	2 eta 3,4 bitarte
Zerga-tasa	9 eta 13 bitarte	8 eta 20 bitarte
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	5	2-5

Udala ez da egokitu Toki Ogasunei buruzko Foru Legean ezarritako lurraren kontribuzioko zerga-
tasa bakarrera; izan ere, jarraitzen du oraindik ere landa izaerako ondasunei eta hiri-ondasunei tasa
berezituak aplikatzen. Horri dagokionez, aipatu beharra dago Udalak 2013ko urrian balorazio-
ponentziaren berrikuspen bat onetsi zuela, eta erabaki zuela hark 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera
izanen zuela eragina.

Tributu, prezio publiko eta bestelako diru-sarreraren honako lagina fiskalizatu dugu:

Kontzeptua	Aitortutako eskubideak (2012)	Aitortutako eskubideak (2013)	2013/2012 urteetako aldea (%)
Hiri-lurraren gaineko kontribuzioa	776.966	799.491	3
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	269.164	284.470	6
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga	28.083	39.677	41
0-3 urteko ikastetxea	104.573	80.920	-23
Konpainia elektrikoaren tasak	161.903	157.709	-3

Egiaztatu da ezen, orokorrean, likidazioa eta diru-bilketa ordenantzen eta arau erregulatzailen
arabera egin dela, eta diru-sarrerak zuzen kontabilizatuta daudela; halere, ez dago jasota azterlanik
egin denik 2013an aplikatutako tasa eta prezio publikoen zenbatekoa oinarritzen duten kostuei buruz.

*Gomendatzen dugu tasa eta prezio publikoak zerbitzuaren kostu errealean edo aurreikusitako kos-
tuen arabera ezartzea.*

V.8. BESTELAKO DIRU-SARRERAK

Udalak 2013an izan dituen gainerako diru-sarreraren multzoak 1,31 milioi euro egiten du, eta ehuneko 91ko betetze-maila dauka behin betiko kredituen aldean; 2012ko ekitaldiarekin alderatuta, berriz, ehuneko zazpiko igoera izan da. Hurrengo taulan bilakaera horri buruzko xehetasunak ikus daitezke:

(eurotan)			
Kontzeptua	Aitortutako eskubideak (2012)	Aitortutako eskubideak (2013)	2013/2012 urte- etako aldea (%)
Transferentzia arruntak	980.161	1.059.661	8
Ondare bidezko diru-sarrerak	89.689	115.738	29
Kapital-transferentziak	155.019	127.990	-17
Finantza-aktiboak	2.818	6.656	136
Guztira	1.227.687	1.310.045	7

Hurrengo taulak gure lanean diru-sarrerak direla-eta aztertu dugun laginaren edukiari buruzko xehetasunak erakusten ditu:

(eurotan)			
Kontzeptua	Aitortutako eskubideak (2012)	Aitortutako eskubideak (2013)	2013/2012 urte- tako aldea (%)
S-10 Konpentsazio Batzarrerako jabe gisa egindako ekarpena	57.330	127.990	123
Bankuko interesak	75.990	92.066	21
Herrien ekarpena oinarritzko gizarte- zerbitzuarentzako	37.871	46.976	24
Herrien ekarpena euskara-zerbitzuarentzako	22.775	22.627	-0,6
S-10eko jabeen emandako aurrerakinen interesak	5.355	15.363	187

Egindako azterketarekin, egiaztatu dugu, oro har, egoki izapidetu eta kontabilizatu direla.

V.9. HIRIGINTZA

Udalak hirigintzaren gainean egindako kudeaketa enpresa batek egiten du: 2013an, 32.376 euroko gastua izan du, zazpi fakturatan oinarritua. Nahiz eta hirigintzarako aholkularitza-kontratua 2012an amaitu zen, 2013an ez zen beste kontraturik egin.

Udalaren hirigintza plana 2007ko apirilean onetsi zen, eta gaur arte 47 tresnaren bitartez garatu da; horietatik, sei planaren aldaketei dagozkie, eta 2013an kudeatu ziren. Honakoa da erabilitako tresnen tipologia:

Tresna	Kopurua
Udal planaren aldaketa	24
Alorreko Plana	1
Plan partzialen aldaketa	1
Xehetasunezko azterlana	13
Birzatatze proiektua	4
Birzatatze proiektuen aldaketak	1
Urbanizazio proiektua	3
Guztira	47

Gaur egun, Udalak soilik hirigintza-hitzarmen bat dauka, eta horrelako tresnak jasoko dituen erregistrorik ez dago; halaber, entitate honek ez du eratu lurzoruaren udal ondarearen erregistrorik.

Gure gomendioak:

- *Lurzoruaren udal ondarea eratzea eta kudeatzea Udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik, sarrerak eta irteerak erregistratuz, bai lursailenak bai eskudiruarenak, eta hura indarreko araudian ezarritako xedeetarako erabiltzea.*

- *Hirigintza-hitzarmenen erregistroa eratzea.*

- *Kontrataziorako araudia aplikatzea kasuko zerbitzua lizitatzeko kontratuen amaieran.*

VI. SOCIEDAD URBANÍSTICA MUNICIPAL ITURGAIN, S.A.RI BURUZKO ONDOARIOAK ETA GOMENDIOAK

Orkoiengo Udala Sociedad Urbanística Municipal Iturgain, S.A.ren bazkide bakarra da; 1998an eratu zen sozietate hori, 210.355 euroko kapital sozialarekin. Sozietatea sortzeko arrazoia izan zen da hirigintza azterlanak egitea, hirigintza-planeamendu eta -exekuziorako tresnak egitea, eta orubeak, industria nabeak eta etxebizitzak sustatzea, eraikitzea eta besterentzea.

Aurrez aipatu den bezala, Kontuen Ganberak sozietate horri buruzko txosten bat eman zuen 2006ko abenduan. Txosten horretatik, honako garrantzizko informazioa atera daiteke:

"...Orkoiengo Udalaren Iturgain hirigintza sozietateak, 1998an eratu zenetik, babes publikoko 600 etxebizitza baina gehiago sustatu eta eraiki ditu. Dena den, jarduera horren kudeaketari buruz, honakoa esan behar dugu:

a) Udal jabetzako lurzorua hirigintza kudeaketa, formalki, Iturgain udalaren hirigintza sozietateak betetzen du. Hala ere, benetan, hirigintza kudeaketa, eta baita Iturgain udal sozietatearen ekonomia- eta finantza-administrazioa bera ere, merkataritza sozietate pribatu batek egiten du.

b) Udal lurzoria kudeatzen duen merkataritza sozietate pribatuari bateraezintasun edo eskusibotasun araubiderik ezarri edo eskatu izanaren berri ez dugu. Halatan, ezerk ez du galarazten sozietate horrek modu pribatuan ere jardutea, bere kasa, partaidetza duen sozietateen bitartez edo hirugarrenak ordezkatzuz, sozietatearen xedearekin bat, Orkoiengo lurralde esparruan.

c) Guk dakigula, udalak ez du finantza kontrolerako eta eraginkortasunerako prozedurarik aplikatu, udal jabetzako sozietate publiko guztiak horien menpe egon behar badute ere, nahitaez..."

Sozietate horrek Kontuen Ganberaren txostenean emandako gomendioak aplikatu zituen; horrela, kudeaketa beste enpresa batekin kontratatatu zuen, eta lehiaketa publiko bat egin zuen beste udal arkitecto bat kontratatzeko.

Azken urte hauetan, higiezinaren arloko krisia dela eta, sozietatearen jarduketa nabarmen murrizten joan da; gaur egun, Udalaren higiezinaren alokairuak kudeatu baizik ez du egiten.

2010ean, Nafarroako Auzitegi Nagusiak auto bat eman zuen, zeinaren bidez 2009ko epai bat betezen baita; epai horretan, lanak enpresa pribatu batek eginak izanik ere, baliogabetu egiten dira sozietateak enpresa horri egindako ordainketak, zeren eta lan horien esleipena legez kanpokotzat jotzen baita. Auto horrek Udalari agintzen zion ordainketa horiek Udalaren sozietateari itzuli izateari buruzko ziurtagiriak aurkez zitzaizkion: 6,74 milioi euro ziren, guztira.

2010eko auto hori gorabehera, aurretik azaldutako kopurua kobratzeko eskubidearen balantzearen eta dagokion diru-sarreraren kontabilizatzea ez ziren 2013ra arte gertatu. Halaber, kopuru hori sozietateari zor dion enpresa pribatua beste arrazoi batzuegatik ikertzen ari badira ere eta aspalditik zailtasun ekonomiko larriak badauzka ere, eskubide horren andeatzearen ondoriozko galeraren aitorpena, halaber, 2013ra arte kontabilizatu zen.

Sozietatearen Administrazio Kontseiluak 2014ko irailaren 10ean onetsi zituen 2013ko kontuak, eta ez daude Merkataritza Erregistroan sarturik. Haiek aztertuta, honako alderdiak azpimarra ditzakegu:

- Ekitaldiaren emaitzak 48.028 euro egin zuten. Gastu nagusiak aipatutako andeatzearen ondoriozko galerari dagozkionak dira (6,74 milioi euro), bai eta langile arloari dagozkionak ere (69.390 euro). Diru-sarrera aipagarriena aurrez aipatutako enpresa pribatuarekiko zorrari dagozkiona da; finantza arloko diru-sarrerak 119.181 eurokoak izan ziren, eta horietatik 90.000 euro Nafarroako Gobernuak interesak ordaintzeari dagozkio, hain zuzen ere sozietateari ezarritako isun bat deuseztatu zuen epai bat betetze aldera; negozio-zifraren emaitza, berriz, 2.806 eurokoa baizik ez zen izan, eta arestian aipatutako alokairuei dagokie.

- 2013an, Udalak sozietatea desegiteko aukera aztertu zuen, eta kanpo aholkularitzako txosten bat eskatu zuen desegite horren ondorioak aztertze aldera. Agiri horretan agerian jarri zen sozietatearen ondasunak Udalari lagatzeak zergapetze-kostu garrantzitsuak eragin litzakeela BEZa zela-eta; kostu horiek, txostenaren arabera, 215.000 euro inguruak izanen ziren.

Halaber, erakundearen zerbitzuak ematen zituen pertsona bakarraren kontratua amaiarazteak ekarriko zukeen kalte-ordainaren gutxi gorabeherako zenbatespen bat egiten zen: 8.062 euro eta 26.467 euro bitarteko kopuru bat izanen litzateke, aintzat hartutako antzinatearen dataren arabera eta kaleratzea bidezkoa ala bidegabea kalifikatzearen arabera. Deigarri gertatzen da kontuan ez izatea pertsona

horren kontratuan kalte-ordainerako aurreikusitako aldia, bai eta aplikatzekoa den araudia (zortzi egun lan egindako urte bakoitzeko); izan ere, hori guztia kontuan hartuta kalte-ordaina nabarmen txikiagoa izanen zen. Hartara, agiri horretan, kalte-ordainaren zenbatekoa kalkulatu zen lan egindako urte bakoitzeko 20 egun, gutxienez, kontuan hartuta.

- Egoera horren aurrean, Batzarrak¹, 2013ko urriaren 31n, honakoa erabaki zuen:

"Sozietatea azkentzeko erabakiari dagokionez, hobeki aztertu beharko da, ikusita zenbateko zerga-kostuak izanen lituzkeen, eta sozietatearen helburuak zabaltzeko aukera aztertu ahal izateari begira, udal kudeaketako zerbitzuak emate ahal ditzan..."

- Bilkura berean, Batzarrak honakoa erabaki zuen:

"Amaiaraztea iraupen jakin bateko kontratu baten bitartez Mendikur eta San Bartolomé etxebizitzak sustatzeko lanari lotuta hartutako langilearen kontratua, zeren eta sustapen horiek amaitu baitira eta sozietatearen hirigintza-kudeaketarekin lotutako jarduera, guztira, asko jaitsi baita..."

- Sozietatean zerbitzuak ematen zituen pertsona bakarrak 2008ko maiatzetik egin du lan, etxebizitza jakin batzuk sustatzearekin lotutako kontratu baten bitartez. Aurrez, Udalak kontratatuta egona zen 2005eko ekainetik, zenbait kontraturen bitartez.

- 2013ko azaroaren 28an, Udaleko idazkari titularra eta kontu-hartzailea falta zirela, Orkoiengo alkateak, Batzarreko lehendakari gisa, pertsona horri kaleratze gutun bat igorri zion, diziplina-arrazoiak tarteko, eta aipatuz erabaki hori honakoari zor zitzaiola:

"... enpresak jotzen baitu ez dela egokia lanposturako behar den profilerako, eta horrek bere errendimendua asko murrizten duela; izan ere, hori Langileen Estatutuko 54.2.e) artikuluan kaleratzerako arrazoi gisa ezarritako ez-betetze bat da..."

- Data berean, 2013ko azaroaren 28an, Nafarroako Lan Epaitegian egindako adiskidetze-egintzan, bildu ziren, sozietatearen aldetik, batzarburuz eta batzarkide bat, kanpoko aholkulari batekin, eta, bestetik, sozietatean lan egiten zuen pertsona eta haren legezko ordezkaria. Une hartan erabaki zen pertsona horri 27.094 euroko kalte-ordaina ematea, zeren eta jotzen baita kaleratzea ez dela bidezkoa, bai eta 2005eko ekainetik aurrerako antzinatasuna aitortzea ere.

- 2013ko abenduaren 18an, kalte-ordain horren ordainketa izapidetu aurretik, kontu-hartzaileak gaiari buruzko informazioa bildu eta eragozpen-ohar bat egin zuen, non honako alderdiak aipatzen baitira:

a) Batzarrak hartutako erabakia kontratua amaiaraztearena izan zen, ez diziplina arrazoiengatik kaleratze bat egitearena; hori zela eta, jotzen zuen alkatearen jarduketa Batzarraren erabakiaren ez-betetze bat izan zela.

b) Udalaren kanpoko abokatuak sozietateko langileari igorritako dokumentazioan, kalte-ordainaren eskuzko kalkulua ageri da, lan-bizitzaren laburpen baten arabera, non 2005eko ekainetik aurrera egindako lanarengatik kalte-ordaina aipatzen baita. Hala eta guztiz ere, langilearen eta sozietatearen arteko harremana 2008an hasi zen, berak Nafarroako Lan Epaitegian aurkeztutako idazkian zehaztu bezala.

c) Abokatuak proposatutako kalkulu horretan langileak Udalarekin 2005etik aurrera izandako lan-harremanak jasotzen ziren, kasuan kasuko kontratuak amaitzeko datetan jada likidatuta, finikituta eta kalte-ordainak ordainduta dauden arren.

d) Sozietatean lan egiten zuen pertsonaren kontratuaren arabera, kontratu horren amaieran esku-bidea zuen lan egindako urte bakoitzeko zortzi eguneko kalte-ordaina jasotzeko. Klausula hori betetz, pertsona horri 3.272 euroko kalte-ordaina ordaindu behar zitzaion.

e) Txostenaren amaieran ondorioztatzen da ulertezin gertatzen dela bidegabeko kaleratze bat izapidetzea, sozietateari kalte ekonomiko bat baitakarkio, eta jotzen du Batzar Nagusia biltzeko deia egin

¹Sozietateak, bere estatutuen arabera, administrazio kontseilu bat eratu bazuen ere, azken horren ia eskumen guztiak Batzarrak betetzen ditu.

beharra dagoela, espediente hori aztertu eta erabaki egokia hartze aldera, Udalaren kanpoko abokatuaren jarduketa arrazoitzeko eta justifikatzeko txosten juridikoa aurkeztu ondoren.

- Kanpoko aholkularitza enpresaren 2013ko abenduko txostenak, besteak beste, aipatzen du langileak kontratatuta zegoen obraz besteko zerbitzu batzuk ematen zituela, Udalaren lokaletan eman ere. Hori dela eta, eta, txostenaren arabera, pertsona hori arrazoi objektiboengatik ezin zenez kaleratu, proposatu zen kontratua amaiaraztea, kaleratzearen bidegabekotasuna aitortuta, hain zuzen ere horrela saiheste aldera Udalaren aurkako epai batek izan zitzakeen ondorioak, hain zuzen ere langileari kalte-ordain handiagoa ematera derrigortuz.

- 2013ko abenduaren 24an, gai hori aztertzeko Batzar bat egin zen, eta, bozketa egin ondoren, aldeko sei bozekin eta kontrako hirurekin, erabaki zen eragozpen-oharra ezestea eta sozietateko langileari ezarritako kopurua, 27.094 euro, ordaintzea.

Azken batean, gure ustez, batzarburuak eta batzarkideak, kaleratzearengatiko balizko demanda baten aurrean, beren eginkizunak gainditu zituzten eta Batzarraren hasierako erabakiaren aurka jokatu zuten; horrek, ondorio gisa, ekarri zuen 27.094 euroko kalte-ordaina eman behar izatea, organo horrek onetsitako erabakiak ekarriko zuen kalte-ordaina 3.272 eurokoa bazen ere, kontratuari eta aplikatzekoa den araudiari jarraituta.

Nolanahi ere, gure ustez, aintzat hartu behar zen antzinatasuna, alde batera utzita kaleratzea bidezkoa ala bidegabekoa zen, izan behar zuen pertsona horrek sozietatearekin izandako kontratu bakkarrari zegokiona, eta kontratu hori, hain zuzen ere, 2008ko maiatzean sinatu zen.

Egitate horien aurrean, ulertzen dugu balitekeela bidegabeko ordainketa bat egin izana, eta horrek kontabilitate-erantzukizunaren aztarnak izan ditzakeela.

Gomendatzen dugu sozietatearen urteko kontuak onestea eta aurkeztea araudian ezarritako epeetan.

Txosten hau Karen Moreno Orduña auditoreak, lan honen arduraduna izan denak, proposatuta eman da, indarrean dagoen araudian aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2015eko martxoaren 18an
Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

Orkoiengo Udaleko alkate-udalburu Carlos Arróniz Loyola jauna, hala baitut egiaztatua, zure aurrean agertu eta honakoa DIOT:

Orkoiengo Udalaren 2013ko ekitaldiari buruzko behin-behineko fiskalizazio txostena ikusita, honako **alegazioak** aurkezten ditudala:

PRIMERA.- Txostenean, 111.2.2 atalean, Sociedad Urbanística Municipal Iturgain, S.A. sozietatean lan egiten zuen pertsona bakarraren kontratua amaieratzeari buruz, honakoa esaten da "**...egitate horiek kontabilitate-erantzukizuna eragin lezakete**", (9. orrialdean), eta txosteneko ondorioen atalean (VI. atala) gauza bera nabarmentzen da, honakoa esanez: "**Egitate horien aurrean, ulertzen dugu balitekeela bidegabeko ordainketa bat egin izana, eta horrek kontabilitate-erantzukizunaren aztarnak izan ditzakeela**".

Testuaren zuhurtasuna gorabehera ("**... izan ditzakeela ...** ", "**... ulertzen dugu balitekeela bidegabeko ordainketa bat egin izana...** "), uste dugu txostenak ez duela egitateen errealitatea bere osotasunean islatzen eta, horrenbestez, haietatik ateratzen diren balorazioak, zuhurtasunez eginak badira ere, tokiz kanpokoak, distorsionatuak eta legezketasunari egokitzen ez zaizkionak direla, eta zalantza batzuk jartzen direla jarduketa bati buruz, nahiz eta jarduketa horri bere osotasunean begiratuta, txostenaren ondorioak ez diren egokiak, zeren eta aplikatzekoa den legediaren arabera jokabide bat izan baita.

Izan ere, txostenean ez dira kontuan hartzen garrantzitsu izan daitezkeen honako alderdi hauek:

a) Sociedad Municipal Iturgain, S.A. merkataritza-sozietate bat da, Udalak, bazkide bakar gisa, eratua, eta, halakoa denez, merkataritza-legediaren menpekoa da. Araudi hori aplikatuta, sozietate baten administratzailean aurkako erantzukizuneko ekintza Batzar Nagusiaren erabakiz onartu beharra dago, eta edozein unetan Batzar Nagusiak **amore eman dezake edo uko egin diezaioke** ekintza horretaz baliatzeari.

Bada, aurkeztutako txostenean, ez zaio behar adina garrantzi ematen **sozietateko akziodun bakarra**, hau da, Udalaren Osoko Bilkura, batzar nagusi gisa eraturik, 2013ko abenduaren 24an, egitateak ezagututa, eta zehazki Udaleko kontu-hartzailearen eragozpen-oharra, hura ezestea erabaki zuela eta sozietateko langileari 27.094 euro ordaindu zizkiola. Horrekin abalatu egiten da eta ontzat ematen da kontratua dela-eta itundutako amaiarazpena, ordaindu ziren kopuruak eta guzti. Nafarroako Auzitegiak, udal bateko merkataritza-sozietate bateko lehenbaitzako akzioak erosteari buruz berriki emandako epai batean, jada gogorarazi du sozietate horiek merkataritza-zuzenbidea dutela arau, eta ez administrazio-zuzenbidea. Espainiako Estatuaren sistema judizialean, epaileek, sistema anglosaxoian ez bezala, ez dute zuzenbidea sortzen, baizik eta hura aplikatzen; hori dela eta, epaiak, norbait "**deskolokatuta**" utz badezakete ere (hitz hori erabili zuen Kontuen Ganberako lehendakariak Eguesibarreko kasuari buruz berriki izan den epaiari buruz hedabide bati egindako adireazpenean), botere legegileak onetsitako legeen aplikazioak dira. Ez da iristen ulertzea enplegatutako baten kontratua amaiarazteko egintza ez dela sozietatearen eskumenetan sartzen, eta egin zen bezala egin zela, hurrengo atalean aldeztu den bezala.

b) Txostenak arineketan pasatzen da beste gai batetik, zeina, gure ustez, funtsezkoa baita egitateak ulertzeko: zehazki, ez du nabarmentzen sozietateko lehendakariaren jarduketa eta Administrazio Kontseiluaren kide batena **zuzendaritza juridikoaren** menpean egin zirela. Ganberaren txostenean esaten den bezala, badijadi handik pasieran zebilen "kanpoko aholkulari batek" adiskidetze ekintzan esku hartu zuela. Egitateek, horrela kontatuta, errealitatea distorsionatzen dute, hain zuzen itxura guztien arabera lekuz kanpoko den ondorio bat oinarritzeko. Egia esatera, sozietateko lehendakariak, batzar nagusiak 2013ko urriaren 31n emandako akordioa, langile bakarraren kontratua amaiaraztearena, betetzerakoan, Artekari enpresako aholkularitza juridiko eta tekniko eskatu zuen. Artekari da bai Udalean, bai hirigintza-sozietatean, orain dela hamar urte baino gehiago langileen kontratazioaren arloa kudeatzen duen lan-aholkularitza. Eta horrek lan zuzenbidearen arloko abokatu espezialista bat jarri zuen, uneoro aholkua eman eta kontratua amaiarazteko zuzendaritza tekniko bere gain hartzeko. Eta gaur den egunean, espezialista horrek berak jarraitzen du esaten egindakoa Zuzenbidearen arabera eta aplikatzekoa den legediaren arabera dela.

Batzar Nagusiak 2013ko urriaren 31n hartutako erabakiak ez du ezer esaten ordaindu beharreko kalte-ordainaren zenbatekoari buruz.

Agerikoa den bezala, ez sozietateko buruak, ez eta adiskidetze-egintza sinatu zuen Administrazio Kontseiluko kideak ez dute Zuzenbideko ezagutzarik; hori dela eta, Udaleko idazkaria eta kontu-hartzailea falta zirenez, uneoro jokatu zuten legelari baten laguntzaren pean, eta legelari horrek lege-argudioekin baieztatzen eta berresten du jardundakoa legezkoa izan zela. Horren erakusgarri, I. eranskin gisa, "Artekari" taldearen txostena ageri da, non, legearen ikuspuntutik oinarritzen baita kalte-ordaina zuzena dela. Horren aurrean, egindakoan dolurik edo iruzur-asmorik ez dagoela ageriko gauza denez; egiaztatu denez egin beharrekoa egiteko behar adina lege-aholkua izan zela, nola esan daiteke, pasaerako ondorio gisa, kontabilitatearen arloko erantzukizunak daudela? Nolanahi ere, uste dugu ezen, egindako auditoria ordaindutako kalte-ordainarekin oso ongi uztartzen ez bada, zuzenena litzatekeela esatea "**Ganbera honen iritziz, sozietateko langilearen kaleratzeko beste aukera batzuk bazeudela**" (Kontuen Ganberako lehendakariak Bideko Autobiaren itzaleko bidesariaren finantzaketari buruz egindako adierazpenen ildotik).

BIGARRENA.- Aurrekoa gorabehera –uste dugu txostenaren atal negatibo bakarra da–, hurrengo baieztapen hauek zuzendu egin behar dira, gure ustez:

a).- 18. orrialdea. Honakoari buruz: "*gizarte segurantzarentzako kotizazioen oinarriek garrantzi handikoak ez diren akatsak dauzkaten beren kalkuluan, eta ez dute betetzen 2010eko ekaineko lansarien gutxitzearen ondoren ezarritako araudia*".

Txostenean adierazitakoaren kontra, uste dugu gizarte segurantzarentzako langileen kotizazio-oinarrien kalkulua bat dator aplikatzekoa den araudiarekin, zehazki ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legean ezarritakoarekin; izan ere, lege horrek Foru Komunitatearen esku uzten du 8/2010 Errege Lege Dekretuak defizit publikoa murrizteko aparteko neurriei buruzko ezarritakoa; izan ere, zazpigarren xedapen gehigarrian honakoa esaten da: "*...2010eko ekainaren 1etik abenduaren 31ra, kotizazio-oinarria bat etorriko da 2010eko maiatzekoarekin, salbu eta kopuru handiagoko bat baldin badagokie*". Lege horren xedea da ezen ordainsarien mugapenek, murrizketek, izozteek eta abarrek ez dezatela izan ondorioz kotizazioetan eta enplegatutako langileen etorkizunean. Ez dago garapen-araudirik "kopuru handiago" hori nola aplikatu behar den esaten duenik. Udalaren irizpidea da kotizazio oinarria kalkulatzeko 2010eko maiatzeko oinarriaren gainean, hari gehituta data horretatik aurrera lansarian gertatu diren igoerak (antzinatasuna, gradua eta abar). Nafarroako Gobernuak beste irizpide bat aplikatzen du, zeinak kotizazio-oinarri txikiena suposatzen baitu.

Horixe da Ganberak Udal honetan aplikatu dadin nahi duena, ez bata araudiaren araberakoa delako eta bestea –berariaz existitzen ez dena, aipatu dugun bezala– araudiaren araberakoa ez delako, baizik eta, auditoriako teknikariak behin eta berriz esan duten bezala, Udalarentzat merkeagoa delako.

Udalak alderdi hori dela-eta erabili duen irizpidea izan da bere langileen eskubide pasiboak erabat errespetatzea, eta irizpide hori Ganberarena bezain legezkoa eta defendagarria denez, Udal honek aplikatzen jarraituko du langileentzat aldekoena den lege-interpretazioa, Zuzenbidearen aurkakoa ez delako. Bestela jokatzekotan, non gelditzen da tokiko autonomia?

b).- 23. orrialdea. Honakoari buruz: "*...padel pistak estaltzeko inbertsioa kontratu-aldaketa bat da, zeina ez baitator bat kontratu hori arautzen zuten orriekin*".

Txostenak padel pistak estaltzea lotzen du esleipendunari laguntza edo diru-laguntza motaren bat ematearekin, instalazioan oreka finantzarioa bilatze aldera. Hori, halere, ez da egia. Ganberaren esku jarritako dokumentazioan ageri denez, Udalak **ezezkoa eman zion enpresari edozein diru-ekarpen egiteari, enpresaren ustiaketa-kontuari buruz zeuden zalantzak zirela eta**. Horrenbestez, ez dira aldatu kontratuaren baldintzak. Izan ere, honakoa dio, hitzez hitz, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldearen eskariak: "*...“...Parlamentuari eskatzen dio Orkoingo Udalari buruzko fiskalizazio-txosten bat egitea, non udal kontuak bilduko baitira, bai eta dauden udal enpresa eta patronatuena eta udal instalazioen kudeaketa pribatuarenak ere, gutxienez ere 2012ko eta 2013ko ekitaldietakoak...*”. Eskari hori gorabehera, egindako txostena ez dagokio eskatutako la-

nari, zeren eta ez baita inon aztertu enpresaren ustiaketa-kontua; hori dela eta, instalazioak defizitarioak izateari ala ez izateari buruzko balorazio bat eduki gabe jarraitzen dugu, udal zerbitzuek egindakoaz bestelakoa. Are gehiago, kanpoan kontratatutako kirol instalazioak Mendikur kirolgunea eta futbol zelaia dira, bi esleipen desberdinekin eta kontratu nahiz ustiaketa-kontu desberdinekin. Ganberaren txostena ez da sartzen instalazioen kudeaketari buruzko kontuen azterketan, eskatu zen bezala.

Padel pistak estaltzeko lana Udalarari kirol instalazioetako berrehun erabiltzailek aurkeztutako eskariaren haritik egin da, hain zuzen ere jada eraikita dauden pisten erabilera egokiagoa lortzeko; izan ere, estali gabe erabilera oso mugatua dute.

Obra hurrengo urtera geroratzek berarekin ekarriko luke instalazioko harpidedunen baja-egoera batzuei eustea, betiere horrek udal interesetan dauzkan eragin negatiboarekin.

Kontuan hartu beharra dago udal instalazio bat dela, eta bertan Udalak egokitzen dituen inbertsioak egin ahal dituela, daukan errentamendu kontratua gorabehera. Egitate horrek ez du enpresa esleipenduna salbuesten bere konpromisoak bete behar izatetik, eskaintzan adierazitakoaren arabera. Enpresa esleipendunak lehiaketara aurkeztu zuen proposamenean, ezartzen da enpresak konpromisoa hartzen duela, errentagarritasun atalasea lortzearen arabera, **2015eko uztailetik aurrera inbertsio batzuk egiteko; esate baterako padel pistak estaltzea, gimnasioaren erreforma, gimnasiaorako makina berriak erostea, saunarako esparrua egokitzea eta abar.**

Hori dela eta, padel pistak estaltzea balizko inbertsioetako bat zen, eta obra Udalak egina denez, oraindik ere zehazteko dago enpresak 2015ean zein inbertsio egin behar duen. Negoziazio prozedura bat irekita dago, lizitaziora aurkeztu zituen proposamen desberdinak hartuta erabaki bat hartzeko. Horri dagokionez, baieztapen hori berresteko, II. eranskin gisa Servicios de Actividades Físicas Urdi, S.L. merkataritza-enpresaren idazki bat erantsi da.

Azaldutakoa dela eta, eskatzen dizut alegazio hauek kontuan hartu eta txostena azaldutako moduan zuzen dezazun.

Orkoienen, 2006ko abenduaren 15ean

Carlos Arróniz Loyola

1. ERANSKINA

Kontuen Ganberaren auditoria txostenean Iturgain Sozietateko langile bakarraren kaleartzeari buruz adierazitakoak ezagutu ondoren, bulego honek azaldu nahi du Iturgain Sozietatearen legezko ordezkari eta Orkoien Udaleko alkate denak bulego honen aholkua jaso zuela, eta bulego honek azaldutako irizpide teknikoak –juridikoak zein lan arlokoak– aplikatuta hartu zuela erabakia.

Aldez aurretiko gogoeta gisa, adierazi beharra dago ezen txostenean azaldutako irizpideari jarraituz, ez zela inongo legelarien esku-hartzerik behar; izan ere, nahikoa en obra amaitzea hiru lerroko komunikazio batekin, hain zuzen ere kontratuan adierazitako obraren amaiera iragartzeko. Bada, laguntza teknikoa eskatu bazen, izan zen ondoren adieraziko ditugun arriskuak bazeudelako.

Bulego honi enkargatu zitzaion Iturgain sozietateko langilearen kontratua amaiazte, Administrazio Kontseiluak erabaki hori hartu baitzuen.

Sociedad Urbanística Iturgain, S.A. sozietate lagatzaileak Orkoien Udalari lagapena egiteko prozesuaren lan- eta zerga-kostuei buruzko aurreikuspen-txostenean, erabakia hartu aurretik berriaz ohartarazi zen honakoari buruz: "Sustapen horien amaiera eta hirigintza-kudeaketarekin lotutako jardueraren beherakada nabarrena direla eta, Kontseiluak erabaki lezake lan-harremana amaiazte, are gehiago kontuan izanda enplegu

publikora sartzeko arauak eragozten dutela Iturgain hirgintza-sozietateko langilea Udalaren plantilla organikoan sartzea.

Baldintza hauetan, aurreikusi beharra dago, horrenbestez, amaiarazpen horretatik eratorritako kalte-ordaina, bidezkoa ala bidegabekoa kalifikatzearen arabera eta Iturgain sozietateko 2008-05-01eko antzintatasunaren datari eta dauzkagun ordainsari-datuei erreparatuta, 8.062,11 eurokoa (20 egun) ala 16.696,16 eurokoa (45 egun) izanen litzatekeela, gutxi gorabehera, 2013ko irailaren 30ean. Antzintatasun data bezala 2005eko ekainaren 27a hartuz gero, 2013ko irailaren 30ri legokiokeen zenbatekoa 12.390,67 eurokoa (20 egun) ala 26.468,88 eurokoa (45 euro) izanen litzateke.

Bulego honek jada balizko gorabehera horri buruz ohartarazi zuen, eta inork ez zuen eragozpen-oharrik egin langile horren kontratua amaiarazteko erabakia hartu zenean, balizko kostu horiekin.

Txosten hau ikusita, eta balizko kostuak ezagututa, Iturgain sozietateko kontseiluak ebazpena eman zuen, langilearen lan-kontratua amaiarazteko eskatuz.

Erabaki horretan, lege-iruzurreko egoeran zeuden kontratuen kateatze bat ageri da, eta, gainera, Udala Iturgain sozietatearen jabea zen eta jarduera udaletxeko lokaletan eta Udaleko langileekin egiten zen; gainera, Udalak langilearen zuzendaritza eta kontrol lanak egiten zituen eta, egiazki, haren enplegatzailea zen. Langileak betetako eginkizunak eta egindako lanak Udalaren eta sozietatearen eginkizun eta lanen artean kokatu behar dira.

2006ko maiatzetik 2008ko maiatzera bitarteko kontratua Udalaren obra-kontratua zen, honako honetan oinarritua:

Kontratu honen xedea da bere kategoriari dagozkion berezko eginkizunak betetzea, Iturgain udal sozietatearen informazioa zentralizatzeko eta koordinatzeko zerbitzua, Udalak kontrolatua, artatzeko, behar horiek dauden bitartean. Une horretatik aurrera, izan ere, kontratua amaiarazi ahalko da. Hori guztia Alkatetzaren 2006eko apirilaren 19ko ebazpenari jarraituz.

Kontratu honek, aurrez azaldutakoaz gainera, konnotazio negatibo bat dauka kontratuan azaldutako obrarekin berarekin, zeren eta obraren identifikazioak berak inplikatzeko baitu zerbitzua ematea Udalak kontratatutako sozietate publikoan, sozietatearen eta Udalaren artean zerbitzuak ematearen arloan dauden mugak lausotuz.

Langilea Udalaren eta sozietatearen artean kontratatuta egon zen, aldi baterako kontratuekin, zortzi urte eta erdiz.

2008ko apirilaren 30ean, Udalean zeukan kontratua amaitu zen, eta biharamunean, 2008ko maiatzaren 1etik 2013ko azaroaren 28ra, langilea Iturgain sozietateak kontratatuta egon zen: enpresaren langile bakarra zen, eta obra kontratu bat zeukan.

Honakoa izan zen adierazitako obra:

Bere lanbide-kategoriari dagozkion lanak egitea, Mendikur etxebizitza-sektorean egindako 114 etxebizitzak eta San Bartolomeko sustapen berria amaitu arte egin beharreko lan administratiboak bukatu bitartean.

Honakoak dira obra- edo zerbitzu-kontratu bat egiteko baldintzak (Auzitegi Gorena 07-10-04, EDJ 184501):

a) Kontratuaren xede den obrak edo zerbitzuak autonomia eta substantibotasun berezkoa izatea, enpresaren jarduera normalaren barruan.

Langilea enpresako langile bakarra zen; horrek esan nahi du langileak erraz egiazta zezakeela epaitegi bategan hertsiki obran azaldutakoan baino eginkizun gehiago eta eginkizun handiagoak betetzen zituela.

Obraren arrazoian, azaldu zen kontratuaren xedea zela lanbide-kategoriari dagozkion lanak egitea, Mendikur etxebizitza-sektorean egindako 114 etxebizitzak eta San Bartolomeko sustapen berria amaitu arte egin beharreko lan administratiboak bukatu bitartean. Obrak edo zerbitzuak profil jakin, objektibo eta zehatza eduki behar du, aldean borondatea zein den ere; horrekin saihestu nahi da horietako baten erabakimenean gera dadila kontratuaren iraupena, zeina kontratuaren elementu garrantzitsuenetako bat baita (Kataluniako Auzitegi Nagusia, 97-03-03).

Izan ere, erabakigarria dena da ea enkargatutako lanak, egiazki, obra edo zerbitzu jakin baten izaera daukan eta enpresaren behar koiunturazko bati erantzuten dion, edo, aitzitik, enpresaren ohiko jardueraren ondoriozko egiturazko behar edo behar iraunkor bati erantzuten dion; izan ere, bigarrena gertatuz gero, aldi baterako kontratu-modalitate bat baliatzen ariko litzateke lan-harreman jarraitu bati estaldura emateko, horrekin legeari iruzur eginez.

Kasu honetan, enpresako langile bakarra zenez, kontratazio-modalitatea ez zegoen justifikatuta, zeren eta egindako lana ez baitzegokion enpresaren behar puntual eta koiunturazko bati.

b) Lana betetzeko epea, nahiz eta denboran mugatuta egon, iraupen jakin gabekoa izatea. Langileak 5 urte eta erdiz lan egin zuen justifikatuta ez dagoen arrazoi batengatik.

c) Zehatz eta identifika dadila kontratuan, zehaztasunez eta argitasunez, haren xede den obra edo zerbitzua. Identifikazioaren funtsezkoa nabarmendu da. Baldintza hori funtsezkoa edo oinarrizkoa da, zeren eta kontratuari dagozkion obra edo zerbitzua behar bezala identifikatzen ez badira, ezin da obra edo zerbitzu jakin bati buruz hitz egin; eta zehaztasun edo determinazio hori falta bada, ezinbestez ondorioztatu behar da kasuko lan-harremanaren mugagabeko izaera. Hori dela eta, edo egiazki ez dago obra edo zerbitzu jakinik kontratua egiteko, edo ez dira obra edo zerbitzu horiek ezagutzen; bada, bi kasuetan emaitza bera da (Auzitegi Gorena, 07-10-04, EDJ 184501).

Ikusten da, zalantzarik gabe, lana enpresaren jarduera normalari dagokiola, eta horrek ez du justifikatzen kontratua aldi baterakoa izatea; izan ere, obrak amaitu ziren eta kontratua, berriz, ez zen amaitu.

Langilea sozietateko langile bakarra zen, eta obra kontratu batekin ari zen lanean; ez du inongo logikarik enpresako langile bakarrak iraupen jakin bateko kontratu bat izatea.

d) Lan-harremanaren garapenean, langilea normalean okupatuta egon beharko da edo obra betetzen edo zerbitzua ematen, eta ez bestelako zereginetan. Langilea sozietateko langile bakarra zen, eta Udalarentzat lan egin zuen Udalaren bulegoetan.

Auzitegi Gorenak behin eta berriz eman izan du iritzia aipatutako baldintza guztiak batera gertatzeko beharrari buruz, obra edo zerbitzu jakin baterako aldi baterako kontratazioa Zuzenbidearen araberkoa izan dadin (Auzitegi Gorena, 09-01-21, EDJ 16988).

Ez zen inongo baldintzarik betetzen obra-kontratua baliozkotzat jotzeko, eta obra-amaierarengatiko kaleratzea bidegabea zen. Horri gehitu behar zaio langilearen nahiz sozietatearen antolatzeke, kontrolatzeko eta kudeatzeko lanak Udalak egiten zituela.

Iturgain sozietateko legezko ordezkari eta Orkoiengo Udaleko alkatea zenak bulego honetara deitu zuenean, azaldu zitzaion kaleratzeak honako arriskuak izan zitzaizkela:

a) Enpresan alta emanda zegoen langile bakarra zenez, arriskua zegoen lanbide-kategoria altuago bat erreklama zezan, bai eta ondainsari- eta kotizazio-diferentziak ere; eta langileak goragoko lanbide-kategoria eta ordainsari-diferentziak erreklamatzuz gero, geroko kaleratzea zailduko zukeen kaltegabatasuneko berme bat sortuko zen.

b) Gerta zitekeen Udalaren eta sozietate publikoaren artean, eta alderantziz, lan-harreman bat edukitzearen ondoriozko ekintza bat gerta zitekeen, eta irabazi ala ez irabazi langileak kaltegabetasuneko bermea izanzen zuen balizko kaleratze kasu batean. c) Bidegabeko kaleratzearen ondoriozko erreklamazio bat gerta zitekeen, non langileak erreklama zezakeen langileen legez kanpoko lagapena gertatua zela; horrek berarekin ekar zitzakeen Lan arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legeko 8.2 artikuluan tipifikatutako zehapen administratiboak, honako isunekin: 10.001 euro, maila txikienean, eta 187.515 euro, maila handienean. Eta deklarazio gehigarriak ere gerta zitezkeen.

Agertoki posible horien aurrean, azkartasunez jarduteko beharra –kaleratzearen aurretiko erreklamazioen arriskua eta Udaleko teknikaririk ez egotea, bata oporretan eta bestea bajaran zeudelako– eta sor zitekeen arazoa aintzat hartuta, erabaki zen adostasuneko konponbide bat bilatzea kontratua amaiarazteko, aurreko arrisku horiek saiheste aldera –Langileak Javier Goldaraz legelariaren (lan-zuzenbideko aditua) aholkua zuen–. Horrenbestez, erabaki zen kaleratze diziplinario bat egitea, bidegabetasuna aitortuta.

Alkate eta sozietateko legezko ordezkari zenak irizpide tekniko baten arabera jardun zuen.

Artekari

2. ERANSKINA

Orkoiengo Udalari, Jorge Urquizu Barasoainek, Servicios de Actividades Físicas **URDI, S.L.** merkataritza-enpresaren legezko ordezkari gisa –helbide soziala Antsoainen du, Larrazko kaleko 91. zenbakian, 11.O bulegoan; 948-073910 telefono zenbakiarekin eta B-31656077 IFZarekin–, Orkoiengo Udalaren aurrean agertu eta honakoa dio:

Aurtengo martxoaren 12an Alkateak aurkeztutako eskariaren aurrean, non eskatzen baitu idatzizko txosten bat egin dadin enpresak Mendikur kirolgunen egin dituen eta egiteko dituen inbertsioei buruz, honako txostena aurkezten dugu, betiere honakoa adierazita:

LEHENA.- 2014ko uztailaren 11n Udalerako jo nuela, eta egindako eskariari jarraituz, enpresak 2014ko uztailaren 28an txosten bat aurkeztu zuela, ordura arte Mendikur instalazioetan enpresak egindako inbertsioak justifikatzeko, betiere egindako inbertsioen faktura guztiak aurkeztuta.

Aurkeztutako dokumentazioarekin, egiaztatuta gelditzen zen enpresak Mendikur instalazioen kudeaketarako lehiaketan aurkeztutako epe laburreko inbertsio-plana betea zuela.

BIGARRENA.- Era berean, aipatutako lehiaketan, enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen zuen, errentagarritasun atalasea lortzearen arabera, 2015eko uztailetik aurrera inbertsio batzuk egiteko, epe ertainean; esate baterako padel pistak estaltzea, gimnasioaren erreforma, gimnasiaorako makina berriak erostea, saunarako esparrua egokitzea eta abar.

HIRUGARRENA.- Udalak padel pistak estali dituenek, hartara erabiltzaile askoren eta enpresaren beraren eskariak jasoz, zerbitzu hobea eman ahal izate aldera, gaur egun, enpresa eta Udala negoziatzen, aztertzen eta baloratzen ari direla zein diren Mendikur instalazioan egin beharreko inbertsio gomendagarrienak eta beharrezkoenak, instalazio horien bideragarritasuna bermatze aldera eta erabiltzaileari ematen zaion zerbitzua hobetze aldera.

Behar denaren arurean jasota gera dadin, Antsoainen sinatu dut idazki hau,

2015eko martxoaren 13an.

Jorge Urquizu Barasoain

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Orkoiengo alkateak aurkeztutako alegazioak aztertuta, ohar horiek txostenari buruzko azalpentzat hartu ditugu, ez baitute haren edukia aldatzen. Txostenari erantsi zaizkio eta txostena behin betikotzat jo dugu.

Nolanahi ere, honako alderdi hauek aipatu nahi ditugu:

- Lehenengo alegazioari dagokionez, alegazioen 1. eranskinaren edukitik erator badaiteke ere Sozietateko Bazarreko buruak eta kide batek gai honetan Artekari Taldearen aholkua jaso zutela, ez dago agiri bidez jasota aholku hori eman izana.

Aurrekoaz gainera, nabarmendu nahi dugu alegazio honen edukiaren eta 1. eranskinaren artean dagoen koherentzia eza. Alde batetik, alkateak berriaz aipatzen du Artekari Taldea dela orain dela 10 urte langileen kontratazioa kudeatzen duena; bestetik, talde horrek, 1. eranskinean, deskribatzen ditu kontratuen erredakzioan eta edukian balizko irregulartasunak daudela, horixe izaki hain zuzen ere Artekari Taldeak esleituta zeukan eginkizuna. Badirudi kontraesankorra dela kontratu horiek egin eta kudeatu zituen talde bera izatea orain adierazten eta justifikatzen duena kasuko pertsonaren kaleratzea bidegabea dela kontratuaren akatsak direla eta.

- Bigarren alegazioari dagokionez, Ganberak kotizazio-oinarrien kalkuluari buruz egindako gomendioa ez da erakunde honen irizpide bat, baizik eta aplikatzekoa den arauditik ondorioztatzen dena. Araudiak, izan ere, honakoa dio berriaz:

“Kotizaziorako kontuan hartu beharreko ordainsaria, Gizarte Segurantzzen aplikatzen diren irizpide berberekin zehaztuko dena, martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen ezarritako sistemari eta azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 3 bis artikuluan aurreikusitakoari dagokienez, 2010eko maiatzeko bera izanen da, salbu eta jasotzen diren ordainsariengatik handiago bat baldin badagokio. Kasu horretan, ordainsari handiago horren arabera egingen da hileroko kotizazioa”.

Orkoiengo Udalean egiaztatu zen ez zirela kontuan hartzen hileroko kotizazio-oinarriak graduaren edo antzinatasunaren eraginez egin beharreko aldaketekin, baizik eta aldaketa horiek 2010eko maiatzean zegoen oinarrian aplikatzen zirela. Hori dela eta, gure ondorioa eta horri buruz eman dugun gomendioa berretsi beharrean gaude.

- Bigarren alegazioaren barruan, b) atalean, padel pisten estaldura aipatzen da; honakoa zehaztu nahi dugu horri buruz:

Lehenbizi esan behar da Kontuen Ganberak ez duela eskumenik entitate pribatuen kontuak fiskalizatzeko; hori dela eta, egindako lana mugatu zen fiskalizatzera kirol instalazioak entitate pribatu batzuek kudeatu izateak Udalarari eragindako aurrekontu-gastua.

Bigarrenik, padel pistak estaltzea, enpresa esleipendunak eskatu bezala, ez zen enpresak egin beharreko balizko inbertsioetako bat izan; izan ere, inbertsio hori berriaz jasota dago enpresak bere eskaintzan aurkeztu zuen inbertsio-planean. Eskaintza hori baloratu egin zen zerbitzuaren kudeaketa esleitzeko garaian, eta, horrenbestez, ezin da jo hori inbertsio-aukera bat denik, baizik eta enpresak egiazki egin behar zuen inbertsio erreal bat zela.

Eskerrak eman nahi ditugu lankidetzarengatik eta egindako oharren edukiarengatik.

Iruñean, 2015eko martxoaren 18an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas